


# ttüpi-ttapa

260. zenbakia • 1999ko abuztuak 12 • XVII. urtea


airean



lurrean



uretan



Argazkiak: AYLA

Ongi pasa esperretan!

**FAGOR** 

*Fagor  
elektrogailuak,  
5 urteko  
garantia*

AENOR  
  
Producto  
Certificado

**AMTIYR**

Doneztebeko sarrerari © 948 450 400

*Prezioa zuk jarri, sukaldea guk jarriko dizugu*



**Almaco  
Baztan**

**ETXEGINTZA ETA  
SANEAMENDU  
MATERIALAK**

© 948 580 104 / 948 580 366  
**ELIZONDO**

↓ Zeramikak



↓ Tximeneak



↓ Velux-ak



↓ Erremintak

  
**BELLOTA**

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85  
FRANKEO ITUNDUA: 34/79  
TIRADA: 7.100 ALE

**Helbidea:**

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
E-31780 BERA (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 11 88  
Faxa: (+34) 948 63 12 91

**Internet:**

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>

**e-mail:**

[ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com](mailto:ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com)

**Jabea:** TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Iri-

goien. **Zuzendaria:** Aitor Aroze-

na. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Aitor Arozena,

Asier Gogortza. **Berriemaileak:**

Joseba Azpiroz, Esteban Aroze-

na, Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba

Fernandez, Lorena Galarregi,

Pablo Mendiburu, Franck

Dolosor, Margari Etxenike, Koro

razoki, Ana Mari Etxeberri,

Martine Goietxe, Frederick

Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe

Maiz, Oskar Txoperena, Pello

Apezetxea, Aitor Arozena, Asier

Gogortza.

**Kolaboratzaileak:** EHNE Nafa-

roa, Mikel Bezunartea, Belarra...

**primategia:** Gertu. **Erakunde**

**laguntzaileak:** Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Jrdazubi eta Sarako udalak,

Bortzirietako Euskara

Mankomunitatea, Malerrekako

Herbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

leugo Euskal Herria ... 2.000 Pta.

par Euskal Herria ... 140 Libera

Europa ... 3.500 Pta.

Amerika ... 15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako  
Gobernuaren laguntza jaso du

## Guk ere oporrak

Urtero bezala, abuztuarekin batera, iraila bitarte agurtzeko tenorea ailegatu zaigu.

Ale honetan, ohi dugunez, eskualdeko herrietako besta gehienetako egitarauak eskuratu dizkizuegu, hemen inguruan gelditzen zaretenentzat. Oporretan kanpora joan behar duzueni, ongi pasatu eta ez galdu, irailaren 9an berriro ere hamabosteroko zita izanen baituzue

**ttipi-ttapa**rekin.

Ongi pasa eta laister arte!

**ttipi-ttapa**



ttipi-ttapa  
fundazioak  
Europako  
Batzordearen  
dirulaguntza  
jaso du

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara

• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

**BURLATA:**

ARTEKARI, S.L., ☎ 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☎ Langile Autonomoak
- ☎ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☎ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☎ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☎ Diru-laguntza ezberdinak
- ☎ Kontabilitateak
- ☎ IVA eta IRPF
- ☎ Errenta aitopenak
- ☎ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☎ Bideragarritasun planak

Ortzirala, abuztuak 13 Arratsaldeko 7,45etan Bortzirietako Herri Ekimena antolatua, agerraldi ixila «Euskal Presoak Euskal Herrira!» eskatuz. 8etan Herriko Etxetik airtuko den altxaferuak, besten hasiera adieraziko du. Parte hartuko duten guzientzat txanpaina izanen da eta haurrendako, berri, goxokiak. Herriko txistulariak, trikitilariak, txaranga, buruhandi eta kankailuak karririkaz karrika ibiliko dirabesta egunetako lehen saioa eginez. 9,30etan herri afaria (txartelak hartzeko azken eguna abuztuaren 10a izanen da). 12etatik 3,30etara musika BASAKABI taldearekin. Karririk LARRAKAITZ txaranga animatuko ditu.

**Larunbata 14: Haurren Eguna**

10,30etan Plater Tiraketa lokala Lizarietako zelaian. Parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute 10etatik 10,30etara. Ondotik sari banatzea eta parte hartu dutenendako hameketakoa. Usoa Ehiztari Elkarteak antolatua. 11etatik 1,30etara eta 3,30etatik 6etara hau-



Argazki gehienak 1950. urteko bestetakoak dira. Goitian, txirrindula lasterketa. Hurrengo orrialdean, asto lasterketan parte hartu zutenak eta probaren irudi bat. Antsolokueta auzoa, 1940. hamarkadan.

ARGAZKIAK:  
Fidel CRUZek utziak

rrendako joku-parkea. 2etan Asau ttiki. 6etan berendua. 7etan Playback. Arratsaldez eta gaeuz LUARTS taldea. Igandea 15: **Andremeri Eguna** 10,30etan argisoinuak txistulari, txaranga, buruhandi eta kankailuekin. 11,30etan Meza Na-

gusia. 12,30etan herriko dantzataldeak bere saioa eskeiniko du herriko plazan. 6etan herri kirolak: Perurena aita-semeak. 7etan bertso saioa: Angel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña. Gai-jar-tzailea: Etxalarko Bertso Eskola. 8etatik 10ak ar-

te eta 12etatik 3etara dantzaldia LAIOTZ taldearekin. LARRAKAITZ txaranga airtuko da. **Astelehena 16:** 11etan Diana. 11,30etan Etxalarko haurren pilota txapelketa palaz. 11,30etan pilota partidua afizionatuen artekoa: Larra-mendieta Garate, Arrieta

eta Erraztiren kontra. 5etan VII. mus txapelketa bi mailatan: Gazteak, 16 urte arte eta Haundiak, 17 urtetik goitikoak. **Arratsaldez eta gaeuz** IZOTZ taldea. LARRAKAITZ txaranga airtuko da. **Asteartea 18:** **Asau eta Jubilatuen Eguna**

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

**HARRI NATURALA**

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angelak	Erlizak
Orma antzinak	Moloturak
Lehoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abuztuak' / 'Zuhar antzela' / 'Mazoa' / 'Txapinak'

**ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK**

**LANDABURUA**

*Janaridenda*

Besta zoriotsuak opa ditizue denei

Tfnoa: 948 635047 • ETXALAR

**ELUTSA**

OSTATUA

Tfnoa: 948 635 191 • ETXALAR

**HERRIKO OSTATUA**

**Jatetxea**

© 948 635290 • ETXALAR

**XATURETXEA**

**JATETXEA**

Tfnoa: 948 637 027 LESAKA

**ANA**

**Janaridenda**

Bittiria, 41 • © 94863 7944

**LESAKA**

**HARITZPE**

948635235  
948635038

**GOSARIAK • BAZKARIAK • BOKATAK**

Astebukaera eta besta egunetan zabalik. Ortziralak enkarguz.



11,30etan herriko haurren pilota txapelketa (mutikoak eskuz eta palaz, neskak palaz). 12etan kankailu eta buruhandiak karrizak karriz. 12etan afizionatu mailako pilota partidua: Etxaniz eta Atano XIII, Apezetxea eta Lukeren kontra. Segidan, mus eta pilota txapelketa sari banaketa. 2etan gazteek Asau ermitako zelaian eta jubilatuek bazkaria Larraburuan. 8etatik 10k arte eta 12etatik 3etara dantzaldia MUSUTRUK. Egunero bezala, LARRAKAITZ txaranga arituko da.



### ASADOR LA BASQUE

Besta on batzuk pasa itzazue


Tfnoa: 948 635153 • ETXALAR

### Deñe

LENTZERIA  
MERTZERIA

Tfnoa: 948 627 514  
Beheko Plaza 8, LESAKA

### E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

**ZURAK**  
• ZURGINDEGI  
• ERAIKUNTZA  
• ENBALAJEA - PALET  
**OIHAN ATERATZEAK**  
**ZERRATEGIA**  
**TABLERORAKO TXAPA**

MADERAS

**IRIGOYEN S A**

**Bulegoa:** Legarrea 14 • LESAKA • © 948 637133  
**Zerrategia:** ETXALAR • © 948 635253



**Ortzirala 13:**  
**Gaueko 10,30etan**  
Arantza Rock99. Taldeak:  
Latzen, Etsaiak, Parasma,  
Fermin Muguruza Dub  
Manifest.

**Larunbata 14**  
**Amabirjin Bezpera:**  
**8etan** txupinazoa Herriko  
Etxetik, beste hasiera  
emateko. Ondotik, herri-  
ko soinulariak eta txistu-

lariak. **9etan** dantzari gaz-  
teen saioa frontoian.  
**9,30etan** Euskal Presoak  
Euskal Herrira kalejira.  
**11,30etan** dantzaldia pla-  
zan ETZAKIT taldeare-  
kin. **12etatik aitzinera**  
besta tropikala Aterpen:  
LOS ZURDOS, TXA-  
TUNGA BENBE eta TU-  
BA BU taldeak.  
Arratsaldez eta gauez tx-

ranga karriketan barna ibi-  
liko da.  
**Igandea 15**  
**Amabirjinaren Eguna**  
**10etan** argisoinua herri-  
ko txistulari eta akordeo-  
lariekin. **12etan** Meza  
Nagusia. Meza ondotik,  
herriko dantzariak fron-  
toian. **5,30etan** Galaper  
tiraketa Bulatxiki mendian,  
Usua elkarteak antolatua.

**7,30etan** herri kirolak herri-  
ko pilotalekuan:  
Nafarroako zakulari txap-  
elketa; arpanlarien era-  
kusketa, aizkora alturan  
(Jose Bikondoa); Igan-  
tziko lasto altxatzaileak  
eta Iparraldeko lasto bo-  
tatzaileak. **9etan** Imuntzo  
eta Belokiren eskutik dan-  
tzaldia plazan. Txaranga  
ilunabar eta arratsean ibi-

liko da.  
**Astelehena 16**  
**Haurren Eguna:**  
**10etan** herriko txistulari  
eta akordeolariak karri-  
kaz karrika ibiliko dira.  
**12etatik 2etara** gaztelu  
haizatuak plazan.  
**12,30etan** afizionatuen  
arteko pilota partiduak:  
Apezetxea Leizaren kon-  
tra, lau terdiaren barre-



**ALBERGEA  
JATETXEA**  
☎ 948 634179  
**ARANTZA**

**ZUZAINEA  
OSTATUA**  
**Besta onak pasa!**  
☎ 948 634016 • ARANTZA

**kixkur**  
**lleapaindegia**  
Tel: 948 637429  
Bittiriako Plaza, 3 behea  
**LESAKA**

**PRIMITIVO  
OSTATUA**  
*Besta onak pasa!*  
Goiko Karrika  
☎ 948 63 40 52  
**ARANTZA**

**BERABI Agentzia, S.L.**

**NISSAN** **BERABI Tailerrak**

- SALMENTA
- MEKANIKA
- ELEKTRIZITATEA
- KONPONKETAK OROHAR

Alkaiaga industrialdea • ☎ 948 631445 **BERA**

**winterthur**

**Zugandik gero eta hurbilago**

**Aseguroak**

☎ 948 630601 • Faxa: 948 630805 • Legia I, **BERA**



Aitzineko orrialdean, duela urte dexente prozesioan ateratako argazkian. Goitian, lagun koadrila, Arantzatik Donostira zoaien autobusaren aitzinean. Ondoa, herriko dantzariak duela hamabortz urte ateratako erretra-toan.

nean. Bikoteka, Arbizu eta Iparragirre, Agesta eta Errandonearen aurka. **4etatik 7etara** gaztelu haztuak. **8etan** apar bes-ta frontoian. **8etatik aitzinera** bertso saioa herriko plazan: Estitxu Fernandez, Bittor Elizagoien, Xebastian Lizaso etaberesemea. **Arratsaldean eta gauean** dantzaldia MUSUTRUK taldearekin.

**Asteartea 17:**

**10etan** herriko txistulari eta akordeolariak karriz-karriz ibiliko dira. **12etan** Herriko pilota txapelketaren finala, Ekaitza elkarteak antolatua. **2,30etan** herri bazkaria, txarangak alaitua. **8etan (Z)** Herri poteoa. **Arratsaldean eta gauean** dantzaldia MAIXA ETA IXIAR taldearekin.

FOTOKOPIAK  
Lanari belduzan  
KOLORETAN  
PLASTIFIKAZIOAK  
ENKADREKATZIOAK  
SERIBIA  
30110  
BERRA  
Eskaintza 26 Euzkoan  
Tel/fax: 948 63 15 21

DISINI GRAFIKOA  
INPRENTA LANAK  
SERIGRAFIA  
ERROTULOAK PUBLIZITATA

**IRUDI**  
KULTUR ETXE AURREAN

**OSIÑA JANARIDENDA**  
*Besta ederrak pasa itzazue!!*  
Tfnoa: 948 63 41 88 • ARANTZA

**LABEZAR**  
© 948 631076 • BERA

**ALZURI**  
**ELEKTRAGAILUAK**  
*Besta onak opa dizkizuegu*  
Bittiria, 41 • © 948 627531; Mug.: 908-778894 • LESAKA

*Pili Marce*  
**Gizon eta emakumeendako ileapaindegia**  
• Ile-kentzea (hotzean eta beroan)  
• Manikurak, pedikurak, makilaiak  
• Perfume, kolonia eta kremen banatzailea  
• UVA izpiak • Solarium  
**Kontsulta naturista**  
• Masaiak • Akupuntura  
• Reflexoterapia eta pisu kontrolak, etab...  
**Tratamendu naturalak eta produktu dietetikoak**  
© 948 634 053 • ARANTZA

**ARANTZA**  
**ZYRGINDEGIA**  
*Jose Miquel Errandouea Ondoki*  
**Era guztietako zurgin lanak**  
Osiña Auzoa © 948 634068  
**ARANTZA**

### Larunbata 14:

**10etan** besta hasierako altxafero. **10,30etan** eskea, Oskar eta Aitziber trikitilariekin. **4etan** haurrendako jokoak: Gaztelu haizatuak, ohatze elastikoak, jokoak... **11etan** piperrada plazan, dohainik nahi duen guziarentzat, Oskareta Aitziberek alaituta. **12etan** Rock Kontzertua. **8etatik 10etara eta kontzertu ondotik** dantzaldia AIS-TRIKA taldearekin.

### Igandea 15:

#### Amabirjin Eguna

**11,30etan** Meza Nagusia. Ondoren, aperitifak eskeiniko du Herriko Etxeak. **12,30etan** dantzariak. **6etan** profesionalen arteko pilota partidua: Alustiza-Errendonea I, Unanue-Arretxeren aurka. **7etan** dantzariak berriro arituko dira. **8etatik 10etara eta 12etatik 4etara** dantzaldia KUKUMIKU taldearekin.

### Astlehena 16:

**11etan** futbol partidua: ezkonduak ezkongabeen aurka. **12etan** Gorriti eta bere animalien ikuskizuna: basurdeak, zakurrak, aretzeak, ahare eta oilar jokoak eta pottokak haurrentzat. **4etan**



Herriko gazteak eskean, duela hamar bat urte ateratako argazkian.

Argazkiak: Koro Irazokik utziak

haurrentzat parkea: Jokolandia. **5etan** aizkolari apostua: Itziar Goenaga, Mugerza II.aren aurka. Harrijasotzaileak: Iñaki Perurena eta Inaxio bere semea. **Arratsaldez eta gaeuz** dantzaldia JOSELU

ANAIK taldearekin.

### Astearte 17:

**10etan** plater tiraketa. **12etan** zigante eta buruhandiak. **5etan** ahalte eta giltza jokoak. **Arratsalde eta gaeuz** dantzaldia ZIRIKI taldearekin.

### Asteazkena 18:

**8etatik** aitzina zikiro-jatea prestatzeko lanak hasiko dira. Txaranga eta gaiteroak karrketan eta ostatuz ostatu ibiliko dira giroa berotzen. **2,30etan** zikiro jatea lezean, txaranga eta gai-

teroak animatuta. **7etan** Larrain dantzak eta Mutxikoak plazan. **Arratsalde eta gaeuz** dantzaldia KUKUMIKU taldearekin.

### F.J. ETXABE Tailerrak

➔ Autoen konponketa

*Besta on batzuk pasa!!!*

© 948 599038 • ZUGARRAMURDI

### ALTZATENEA JATETXEA

*Besta ederrak pasa!!*

Tfnoa: 948 59 91 87 - ZUGARRAMURDI



Altzate, 19•948630786 •BERA

## ANSALAS OSTATUA

HARATEGIA  
JANARIDENDA

*Besta ederrak pasa*

© 948 59 90 82 • ZUGARRAMURDI



**BORTZIRI**  
UNSION ANAIK  
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA

Bereau etxea • LESAKA  
Tel eta Faxes: 948 637 266

## AZKETA frontoia


ostatua-jatetxea

**Bokadilloak  
eta pintxoak**

Frontoia

© 948599022 • 948 599230  
ZUGARRAMURDI





Ezkerrean goitian, gan den urtean ezkondu eta ezkongabeen arteko partiduan parte hartu zuten *futbolariak*. Behegian, Huarteko ziganteak ere present izan ziren Zugarramurdiko bestetan. Lerro hauen gainean, 1997ko errebestetako argazkia, lezean. Bistan da umorea soberan zela!

Argazkiak: Koro Irazokik utziak

**DROGUERIA MOLINERO**

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •  
 2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina  
 10 minututan zuk nahi duzun kolorea  
 Profesionalentzat prezio berezia  
 Eztegara 19 • ☎ 948 63 02 40 • BERA

**ARMUA**  
**Jatetxea**

Zugarramurdiko karretera 3. Km  
 ☎ 948 599 131 - URDAZUBI

**MARIXAN OSTATUA**  
**BESTAK ONGI PASA!**  
 ☎ 948 599170 • ZUGARRAMURDI

**CONSTRUCCIONES MECANICAS**  
**BEARIZAN S.L.**

Makinaria eraikuntza  
 Moldaketak eta despiezea  
 Mantenimendu mekanikoa  
 Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantzioko Bentak • ☎ 948627572 • Faxa: 948637313

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera  
 ☎ 948630735

**Bierresenea**  
**OSTATU - JATETXEA**  
 Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • ☎ 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

**Ortzileria 13:**

**8etan** suziriak eta ezkil-jotzea. **9etan** Baztan zopak, Kristianen musikaz alaituak (Txartelak Urdazubi, Elizondo, Erratzu eta Amaiurren salgai). **12,30etatik aitzin** gaupasa MAIXA eta IXIAR taldearekin.

**Launbeta 14:**


**5etan** VI. Txirindula bilgura. **7etan** asto karrera. **8,30etan** kantaldie: Erramun Martikorena, Amaia Riousspeyrous (ETBko "Izar Bila" programako txapelduna eta Amaiurko kantariak). **10etan** mutildantzak **10,30etan** xexenak laxoan. **12etan** dantzaldie TAPIA ETA LETURIA eta FURUNDA taldeekin. **6etan** zinger jatea.

**Igandea 15:**

**Amabirjin Egune**  
**11etan** Meza Nagusia. **12,30etan** mutil-dantzak. Ondotik, Amaiurko dantzariak eta hameketakoa. **5,30etan** XXIV. Artzainzakar txapelketa. **7,30etan** jubenilen arteko pilota partida. **8,30etan** dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin. **10,30etan** mutil-dantzak. **11etan** xexenak laxoan. **12etan** dantzaldia GORRAMENDI 10 taldearekin.

**Astlehena 16**

**Haurren Egune**  
**11etan** futbol partida. **4,30etan** haurrendako jokoa. **5etan** magia,



Balleko Udala eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. **8etan** dantzaldia JOXE ANGEL akordeolaria-rekin. **10etan** mutil-dantzak. **11tan** xexenak laxoan. **12,30etatik 3ak arte** dantzaldia JOXE ANGELEkin.

**Asteartea 17**

**Zikiro-jate Eguna**  
**11,30etan** musizimizte Gaztelu elkartean. **2etan** zikiro-jatea. **8etan** dantzaldia JOXE ANGEL eta KRISTIAN musikariekin.

**10etan** mutildantzak. **11etan** xexenak laxoan. **12,30etatik aspertu ar-**

**te dantzaldia JOXE ANGEL eta KRISTIANekin eta besten akabaila.**



**1978. urteko bestetako argazkiak: Asto karrera eta txapeldunak, kalejiran.**

Argazkiak: Junkal Urrutiak utziak

**ORDOKI LIKOREAK**  
ERRETEGIA  
Parrilan egindako haragi eta arrainak

Tel.: 948453410  
Fax: 948453378  
ARIZKUN

Baztanen... **24 orduko zerbitzua**

**ESTHER FUNERARIA**  
Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak. etab...

LOREDENA • GARDEN CENTER

Eta Iruñean...  
**IRACHE TANATORIOA**  
Iratxe Monastegia. 60  
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**  
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**  
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

*Eskisaroi jatetxea*  
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013  
**ELIZONDO**

**MENDIALDE Jatetxea**  
AMAIUR • ☎ 948453060

**Larunbata 14:**

**Haurren Eguna**

12etan txupinazoa eta ezkil jotzea. Segidan, herriko akordiolariak karrikaz karrika. 3etan tute txapelketa. 5etan plater tiraketa. 5etan haurrendako jokoak. Segidan txokolata banatuko da. 9,30etan Baztan zopak. 12etan dantzaldia.

**Igandea 15:**

**Amabirgin Eguna**

10etan Meza Nagusia. 11etan herriko dantza taldea plazan. 11,45etan aitzinako autoen erakusketa. 12,30etan hameketako herrikoa. 6etan aitzurjaurtiketa txapelketa plazan. 8,30etatik 10,30etara dantzaldia GAUBELA taldearekin. 10,30etan su artifizialak. 12,30etatik aitzinera dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Astehena 16:**


**Gazteen Eguna**

10etan argi soinuak. 2etan gazteen bazkaria zentrallean. 8etan mozorrotxapelketa. 8,30etatik aitzinera dantzaldia ANTXETA taldearen eskutik. 12,30etatik aitzinera dantzaldia ANTXETA taldearen eskutik.

**Asteartea 17:**

**Herrikoen Eguna**

10etan argi soinuak. 11tan mustxapelketa az-



**Dantzak lehen eta orain. Herriaren itxura aldatu bada ere, ohiturak mantentzen dira**

ARGAZKIAK:  
Gurutze AIZPURUK utziak

karra. 2etan herri bazkaria. 6etan herri kirol saioak, Leontxo Goñi omenduz. Ondotik, betizuak. 8,30etan eta 12,30etatik aitzinera dantzaldia ANTXETA taldearekin.



- APARKALEKUA
- TERRAZAK
- ARRANTZA
- LEKU EDERRA

**Abuztuaren 14an,  
Besta Bezperako menu berezia:**

- BAZTAN-ZOPA
- TXURITABELTXA
- AHARI GISATUA

**HOTEL MUGAIRE**

LOGELAK EROSOTASUN GUZIEKIN  
OSTATUA • JATETXEA (KARTA ETA MENU ZABALA)

© 948 592050, Bidasoa erreka bazterrean, Bertizko jaurerriaren ondoan • OIEREGI-BERTIZARANA



**Ordua eska ezazu**

Miren Gortari Sein  
© 948 592310  
ORNOZ-MUGAIRI

**Ortzileria 20:**

**Besta Bezpera**

12etan txupinazoa.

10etan baztan-zopak.

12etatik aitzinera dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

**Larunbata 21:**

**Haurren Eguna**

10etan argi-soinuak.

12etan txirindula lasterketa. 1etan tortilla patata eta marrazkien lehieketa. 2etan haurren bazkaria. 4etan haur jokoak.

5,30etan haurrendako antzerkia. 7etan soka-muturra. 8,30etan dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

10etan mutil-dantzak.

12etatik goizalderaino gaupasa LAIOTZ taldearekin.

6etan zinger jatea.

**Igandea 22:**

10etan argisoinuak.

1etan Meza Nagusia.

4,30etan plater tiraketa Bagordin. 7etan sokamuturra. 8,30etatik 10,30etara dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

10etan mutil-dantzak.

12etatik aitzin dantzaldia LAIOTZ taldearekin.

**Astlehena 23**

**Herriaren Eguna**

10etan argisoinuak.

12etan futbol partidua.

Herriko zaharrak gazte-enkontra. 2etan herri bazkaria. 7etan sokamuturra. 8,30etatik 10,30etara dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin. 9etan ezkil jotzea. 10,30etan mutil-dantzak. 12etatik 4etara dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin.

9etan ezkil jotzea.

10,30etan mutil-dantzak.

12etatik 4etara dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin.

9etan ezkil jotzea.

10,30etan mutil-dantzak.

12etatik 4etara dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin.

9etan ezkil jotzea.

10,30etan mutil-dantzak.

12etatik 4etara dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin.

9etan ezkil jotzea.

10,30etan mutil-dantzak.

12etatik 4etara dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin.

9etan ezkil jotzea.

10,30etan mutil-dantzak.

12etatik 4etara dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin.

9etan ezkil jotzea.

10,30etan mutil-dantzak.

12etatik 4etara dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin.

9etan ezkil jotzea.

10,30etan mutil-dantzak.

12etatik 4etara dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin.

9etan ezkil jotzea.

10,30etan mutil-dantzak.

12etatik 4etara dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin.

9etan ezkil jotzea.

10,30etan mutil-dantzak.

12etatik 4etara dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin.

9etan ezkil jotzea.

10,30etan mutil-dantzak.

12etatik 4etara dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin.

dia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin.

**Asteartea 24:**

**San Bartolome Eguna**

10etan argisoinuak.

12etan Meza Nagusia

Zaindariaren ohoretan. 1etan

herriko dantzariensaioa. 7etan

sokamuturra. 8,30etatik

10,30etara dantzaldia. 10etan

mutildantzak. 12etatik 4etara

dantzaldia.

**Asteazkena 25:**

**Gazteen Eguna**

10etan argi soinuak. 2etan

Gazteen bazkaria Etxebertzeko

Bordan. 7etan sokamuturra.

8,30etan dantzaldia. 10etan

mutildantzak. 12etan dantzaldia eta besten

akabaila.

**SAN  
BARTOLOME  
ELIZA ETA  
OHARRIZ  
ETXEA,  
LEKAROZEN.**



**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, © 948 580939  
ELIZONDO

**MERKEALDIAK**

Udako arropetan eta teletan

**Konplementoak**

Belarritakoak, eraztunak, gerrikoak,  
oinetakoak, zapelak...

*Txema Etxarte*

Zolen akutxilatze eta  
bernizatze profesionala

© 948 637439 • 31700 LESAKA

**HUR-BERRI, S.L.**

Iturgintza, kalefakzioa eta elektrizitatea

© 948 452449 - 608 776105 • Fax: 948 452 452


Oharriz - 31795 LEKAROZ

**LARRALDEA  
SAGARDOTEGIA**



Urtarrilan berriz zabalik  
Bestatan Larralde  
Sagardoa edan ezazu

© 948 452121 • LEKAROZ



## POPULAZIOA

# HERRI TTIKIENAK GERO ETA TTIKIAGOAK

### GORABEHERA AIPAGARRIENAK

HERRIA	1960	1998	DIFERENTZIA
Baztan	9.312	7.741	-1.571
Arano	360	141	-219
Ezkurra	475	268	-207
Eratsun	436	189	-247
Zugarramurdi	525	239	-286
Bera	2.600	3.507	+907
Doneztebe	785	1.297	+512
Lesaka	2.294	2.760	+466
Senpere	2.240	4.300	+2.060

#### 2-5. POPULAZIOA:

Herriz-herri biztanlegoak goiti edo beheiti egin duen ikasi dugu. Datu hoiek adierazten dute, nolabait, inguruko herrien osasuna.

#### 6-8. BAZTANGO ARMARRIAK:

Baztango armarren gaineko erreportaia.

**12. KONTU ZAHARRAK:** Leitzako aspaldiko ziz-tulariei buruzko kontuak.

#### 16. ELKARRIZKETA:

Manex Bergara eta Jean Laborde.  
Sarako bi kontrabandista-ohiren bizipenak.

# Herri ttikienak biztanlerik gabe gelditzen ari dira

**Haur gutti jaio eta adineko jendea hiltzen joaten den neurrian eskualdeko herri batzuk bizitasuna galtzen ari dira urtetik-urtera. Kanpoko jendea ere nekez etortzen da zenbait herritara, komunikazio sare nagusietatik aparte xamar daudenetara batez ere.**

**90. hamarkada honetan Elgorriaga, Urrotz, Donamaria eta Aresok bakarrik egin dute goiti herri ttikien artean. Herri koxkorragoak, aldiz, gehienak hazi egin dira, Lesaka, Bera, Doneztebe, eta Senpere adibidez. Azken herri hau, gainera, nabarmenki.**



Herri baten biztanle kopuruaren arabera eta biztanleen adinaren arabera neurtzen ahal da herri horren osasuna.

1960-1998 urteetan gure herrietako populazioak zer nolako aldaera izan duen jakin nahi izandugu. Zertarako? Guttigoiti beheiti gure herriak osasunez nola dabilzan ikasteko. Izan ere, herrien bizia eta bizitasuna nolako den neurtzeko, tresna baliotsua izaten ahal da bizilagunak ugaritzen edo urritzen ari diren jakitea.

Herri batean jaio eta lehenbiziko urteak bertan eman izanak herriarenganako atxekimendua sortarazten badu ere, ez du aski indarrik, horrek soilik, herriari bizitzen jarraitzeko.

Ez dago dudarik, izan ere, jendeak bizimodu egoki eta eroso lortzeko, lagun eta senideen harreman mundua atsegingarri eta lagungarri duela. Baina bertzelakoak ere beharrezko ditu, neurri batean behintzat, halanola, jende gehiagorenganako harremanak, irabazbidea—normalean lanetik datorkiguna—, ikastetxeak, osasungintzaren zerbitzuak, etxebizitzak, etabar. Zerbitzu horiez ongi hornitua badago herria, jendeak bertan egoteko joera haundiagoa izanen du. Lantegi eta bertze zerbitzuen eskasia sufrituz gero, ordea, kanpo aldera aisago joko

du, batez ere, familian haur eta gazte jenderik balego. Harazergatik populazioaren gora-behera herriko osasunaren neurrerako tresna bihurtzen den, nahiz eta ez izan hori neurgailu bakarra.

**Herri ttikiak ttikitu, haundienak haunditu**  
1991tik honat TTPI-TTAPAREN eremuko 10 herri egin dute goiti bizilagun kopuruari dagokionez: Aresok, eta Donamaria,

ak, Doneztebek, Elgorriagak, Igantzik, Lesakak, Urrotzek, Berak, Sarak eta Senpererek. Lapurdiko bi herri hauen kasua aski nabarmena da, batez ere Senperekoak. Azken hamarkadan 800 biztanle baino gehiagotan hazi da herria. Horrela, eskualdeko herririk haundiena bihurtu da Senpere, duela hamar urte Berak haina biztanle zituen arren. Azken boladan familia ugari bizitzeko toki bezala aukeratu dute Senpere nahiz

eta kanpoan lan egiten segitu. Aintzira inguruan, adibidez, nabaria da etxe berri aunitz egiten ari direla kanpotik etorritako familientzat.

Bertzalde, bere hortan mantendu diren herriak ere ikusten ditugu grafikoei begiratuz, Malarreka aldean batez ere: Labaien, Eratsun eta Oitz adibidez. Azken hamarkadan ez dute aipatzeko aldaketarik izan, nahiz eta 1960ko datuekin alderatuz gero biztanle aunitz galdu dutela bistan den. Eratsunen gauregun bizi diren bikoitza baino gehiago bizi ziren 60. hamarkadan. Oitzek ere 204 bizilagun zituen 1960an, eta gaur den egunean 157ra jautsi dira. Beintza-Labaienek ere 60 eta 70. hamarkadetan izan zuen beheitikadarririk haundiena. 537tik 281 biztanlera hain zuzen. Dena den, azken 20 urteotan hortik beheiti ere ez direla joaki iduri du. Gainerako guzkiek, berriz, gal-

*Zerbitzuez ongi hornitua baldin badago  
herria, jendeak bertan egoteko joera  
haundiagoa egoteko joera haundiagoa  
izanen du. Lantegi eta bertze zerbitzuen  
eskasia sufrituz gero, ordea, aisago  
joko du kanpo aldera.*




# Populazioaren gorabeherak azken 40 urteetan


**ARANO**




**ARANTZA**



**ARESO**




**BAZTAN**



**BERA**




**BERTIZARANA**




**DONAMARIA**




**DONEZTEBE**




**ELGORRIAGA**




**ERATSUN**




**ETXALAR**




**EZKURRA**




**GOIZUETA**



**IGANTZI**



**ITUREN**




**LABAIEN**




**LEITZA**



**LESAKA**




**OITZ**



**SALDIAS**




**SARA**



**SENPERE**




**SUNBILLA**




**URDAZUBI**



**URROTZ**



**ZUBIETA**



**ZUGARRAMURDI**



**ESKUALDEAN**





## Jose Mª ARRAZTOA

### Elizondoko soziologoa

**E**skualde baten etorkizun demografikoa bere garapen ekonomikoaren araberakoa da.

1960tik gaur den egunerarte, 1.500 biztanle galdu ditu gure eskualdeak. Egoera hau igoaltsoa da Nafarroako zonalde guzietan, baina batez ere mendialdea da populazioan gehien jaitsi dena.

Hala ere, badira kontrako joera hartu duten herri batzuk: Bera, Doneztebe, Lesaka, Leitza eta Sara adibidez. Hauen artean lokarri amankomun bat ikusten dugu:

*Inbertsio eta zerbitzu berriak ezartzea batere errazten ez duten bide-azpiegiturak ditugu.*



industria haundiak edota haunditzen ari diren industrialdeak. Egoera honek argi erakusten digu gorakada ekonomikoak populazioaren gorakada ere ekartzen duela.

Populazioak beheiti egiten duen herrien artean Baztan da biztanle gehien galdu duena. Lehenengo eta behin, enplegu gutti sortzen da eta hori gazteen kalterako da batez ere. Horrela, gazte aunitzek lana eskaintzen duten tokietara aldegiten dute (Iruñera gehienbat). Gisa berean, Baztango aktibitate ekonomikoa Lehen sektorearen inguruan garatzen da (zonaldean arras finkatua bainan apenas enplegurik sortzen duena) eta baita Hirugarren sektorearen inguruan. Aldiz, industriarik ez dago kasik, eta beraz ez dira lanpostu zuzen eta zeharkakorik sortzen. Baztanen eraikuntza arloak ematen du lanpostu gehien.

Bertzalde, aipatzekoa da Baztango Udalen bereizitasuna, alde batetik 15 herri elkartzen dituelako, eta bertzetik, inguruko herririk zabalena delako. Horrexega-

tik, edozein inbertsio aplikatzeko zaila suertatzen da, zerbitzu, industrialde edo enpleguarendako laguntza...

Bukatzeko, eta orain arteko zentzu berean, inbertsio eta zerbitzu berriak ezartzea batere errazten ez duten bide-azpiegiturak ditugu. Oraindik ezin gara solastu Belateko tunelek izan dituzten ondorioetaz. Dударik gabe, despopulazioaren eraginez gero eta herri tiki gehiago dago gure inguruan, eta biztanleagoa herrigune haundietan elkartzen da.

*Baztan da biztanle gehien galdu duena.*

*Lehenengo eta behin, enplegu gutti sortzen da, eta hori gazteen kalterako da.*

*Aunitzek Iruñera aldegiten dute lan bila.*



## Fernando MIKELARENA

### Berako historialaria

**Z**er erran daiteke azken 40 urtetako gure eskualdearen bilakaera demografikoaz? Lehenengo eta behin, herrika eta orokorrean eboluzioa deskribatuko dut. Bigarrenik, bilakaera horren zergatiak azaltzen saiatuko naiz.

Gure eskualdeak 1960tik 1981era ia mila biztanle galdu zituen, eta azken 20 urteotan, berriz, 500 inguru. Beraz, argi dago industrializazio prozesuak geldiarazi egin duela gure eskualdeko emigrazio joera, nahiz eta ez arras desagertarazi. Hala ere, Nafarroako bertze mendi eremu batzutan eta Erdiko zonaldean gertatu den despopulazio fenomeno ez da horren nabaria izan hemen.

Bera, Doneztebe, Leitza, Lesaka, Sara eta Senpere dira 1998an 1960an baino biztanle gehiago dituzten herri bakarrak, Bera eta Doneztebe izanik gehien hazi diren herriak. Leitza, aitzitik, pixkanpik biztanleak galtzen ari da 1981etik eta Lesakak 80. hamarkadan galdutako jendearen erdia berreskuratu du 90. hamarkadan.

Arrazoi ekonomikoak dau-

de, nola ez, eskualdeko herrien bilakaera demografikoaren atzean. Erran daiteke nekazaritza herriko ekonomia-

aren ardatz bezala duten herriak beheiti joan direla biztanle kopuruan, eta alderantziz, herri industrialenak edo postindustrialenak hazi egin direla. Horrela, Bera, Doneztebe, Leitza eta Lesaka ziren 1991ean proportzioan nekazari guttien ziztuzten herriak (%6 edo %9 inguru). Aldiz, populazio dinamika makurrera duten herriek nekazaritza eta abeltzantzan lan egiten duen jende aunitz dutela ikusten dugu: Arano, Arantza, Eratsun, Etxalar, Oitz eta Sunbillan, 10 langiletik bik edo gehiagok lehen sektorean lan egiten dute; Baztanen, Donamarian eta Urrotzen ia hiruk edo hiruk baino gehiagok; Labaien, Saldias, Urdazubi, Zubieta eta Zugarramurdiin lauk edo lauk baino gehiagok.

Herri batean zenbat jende bizi den

*Argi dago 80. hamarkadako industrializazio prozesuak geldiarazi zuela gure eskualdeko emigrazio joera, nahiz eta ez arras desagertarazi.*



*Nekazaritza ekonomiaren ardatz bezala duten herriak beheiti joan dira biztanle kopuruan, eta alderantziz, herri industrialenak hazi egin dira.*



jakiteaz gain, garrantzitsua da zer nolako biztanleak (gazteak, adinduek) bizi diren jakitea. Biztanle gehien galdu duten herriak biztanle adinduenak dituztenak dira, eta alderantziz, joera positiboan izan dituztenak adin-piramide gazteenak dituztenak izar dira. Baztan, Etxalar, Labaien, Urdazubi eta Zubietak 100etik 20 pertsona baino gehiago zituzten 65 urtez goitikoak. Leitza, aitzitik, 100etik 9,2 pertsona dira hirugarren adinekoak, 12,4 Donezteben, 12,9 Beran eta 14,2 Lesakan.

Akautzeko, aipatuko dugu hirietatik herrietara bizitzera etortzeko joera (komunikazio sarearen hobekuntza probetuz) ez dela Estatu berte zonaldean bezain nabarmena. Joera hori Donamaria, Doneztebe eta Elgorriagan somatu da alde batetik, eta Bera, Igantzi eta Lesakan, bertzetik. Seguraski herri gehiagotan nabaritu da joera hau hurrengo urteetan.



du egin dute: Baztanek ia 200 lagun galdu ditu azken hamarkadan, Arantzak 30, Etxalarrek bezalatsu, Goizuetak 40 bat, Leitzak 100, Sunbillak 25... Hala ere, kasu larrienetakoak Urdazubi eta Zugarramurdikoa dela erran daiteke. Bi herri hauek gertatzen dena, 500 bizilagun baino guttiagoko herrixkak izanik, arrotz kezagarria da. Urdazubin iaz 63 lagun guttiago zeuden 1991n baino, eta Zugarramurdik ere 30 bat galdu ditu 9 urtetan. Zugarramurdin, beheitikadarik bortitzena 60 eta 70. hamarkadetan gertatu zen, 1960an 525 biztanletik 1981ean 315 baizik ez baitziren gelditzen. Gainera urtero-urtero biztanleak galtzen dituzte herri hauek, eta zaila izanzen da beheitarako joera hori aldatzea.

### Aldaketaren arrazoiak

Populazio kopuruaren aldaketa zerk eragin duen jakitea hagitiz interesgarria da. Gure eremuko herri gehienak hain dira ttikiak, batzuen izana ere etorkizunean kolokan dagoela erraten ahal baitugu. Herri batek herri bezala irauteko guttieneko bizilagun kopurua behar du. Hori gabe ezinezko baita jendeak behar dituen baldintza eta zerbitzuegoki samarrak lortzea, arestian aipatu dugun modura. Beharbada ez dumerazi azterketa sakonetan sartzerik, baina zergati edo kausa batzuk aipatzen ausartuko gara. Lesaka eta Beran populazioa haunditzeko orduan industriak eragin duela zalantzarik ez dago. Eta industriarekin batera

etxebizitzaren aukera ere etorri da. Doneztebe eta Elizondon, berriz, zerbitzu gehiago eskeintzeak erakarri duela jendea erraten ahal dugu. Bata bertzearekin lotuak joaten direnez, jende gehiago den lekuan aisago irauten du herritarrak, eta aisago etortzen da kanpotik jende berria ere. Eta jende gehiagorekin aukerak eta eskeintzak ugariago dira.


Herri ttikietan, bertzalde, komunikazio sarearekin duten loturak garrantzi handia du. Hauda, herri koxkorretatik urrun edo hurbil dauden, errepideak manerakoak diren, etab.

Izan ere, gero eta gehiago egiten duen aukera da herrixka batean bizi eta hiriburura lan egitera joatea. Honen adibide garbiak dira Elgorriaga, Donamaria eta Urrotz Malerrekana, Areso

(autobiatik hurbil-hurbil) Leitzaldean, eta batez ere Senpere eta Sara Lapurdin.

Joerak aldatzen ahal dira faktore desberdinen arabera, baina ezaugarri hoiek betetzen ez dituzten herriek iraubizitzeko zailtasunak izanzen dituztela erran dugu lehenago. Beharbada herri batzuetan neurriak hartu beharko lirakeke populazioaren beherakadaren kontra. ■

# KULTURKARI

publizitatea  zerbitzuak

Herriko Etxeko Plaza, 1 • E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+ 34) 948 63 11 88 / Fax: (+ 34) 948 63 12 91

Diseinu eta publizitatean, zerbitzu integrala

**Irudi korporatiboa** ▼ **Publizitatea prentsan**


**Logotipoak** ▼ **irratian eta**

**Folletoak** ▼ **telebistan.**

**Aldizkarriak** ▼ **Publizitate**

**Katalogoak** ▼ **kanpainen**

**Diseinua** ▼ **antolaketa**



*Gure eremuko  
herri gehienak  
hain dira ttikiak,  
batzuen izana ere  
etorkizunean kolokan  
dagoela erraten  
ahal baitugu.*



## BAZTANGO ARMARRIAK

# Koadrodun taula edo xakeatua, Baztango armariaren berezitasuna

Eskualdeko etxe ugari-  
ren paretetan ikusten  
ahal dira armarriak, bai-  
nan beharbada Baztan al-  
dea da armarrietan tra-  
dizio gehiago duen es-  
kualdea. Heraldikan adi-  
tuak direnak behin bai-  
no gehiagotan saiatu di-  
ra armarri hoiak sailka-  
tu, noizkoak diren asma-  
tu eta zer erranahi zuten  
ikasten. Armarriak ere  
gure historiaren zati ga-  
rrantzitsua direnez, adi-  
tu baten argibideak eka-  
rri ditugu orri haue-  
tara: Vidal Pérez de Villarrea-  
lena.



Iriarte etxea, Azpilkuetan. Gaur egun koloreztatua ageri da nahiz eta argazkian ez ongi nabaritu.

**B**aztan aldean, etxebizitza  
aunitzek, nahiz jauregi zaha-  
rrak nahiz herrian barriaturi-  
ko etxeak izan, aitzineko alde-  
an harri heraldiko zizelkatuak  
dituzte. Armarrria izenez eza-  
gutzen dugun hau, Baztango  
nekazarienetxe-apaingarri ga-  
rrantzitsuenetako bat izan zen  
eta da, oraindik orain.

Gehienetan, ia beti, gai ber-  
bera ageri da Baztango armari-  
etan: dametako taula, koadrodu-  
na edo xakeatua, hain zuzen.  
Armarrien munduan, ikur no-  
ble eta zaharrenetakoa da xake-  
atua, miliziaren erretratoa bai-  
ta. Irudi honek guda-zelaia iru-  
dikatzeko du, arerioen armaden  
gudariak, aurrez-aurre kokatu-  
rik lauki zuri eta beltzen gaine-  
an.

Baztango Ballea osatzen zu-  
ten hamalau herriek –gaur egun  
hamabortz– xakeatua noiz eta  
nola lortu zuten da gaur egun-  
go eztabaidagai nagusieneta-  
koa.

Antso Gartzia erregeak –Na-  
farroako laugarrenak– frantse-  
sen kontrako gudu batean arris-  
ku haundiko egoeratik ateraz-  
tearen ordainez eman zuela  
diote batzuek, errate baterako  
Rodrigo Mendez Silvak, “La



Makitenea. Amaiurko etxe honen armarrarian kanpaia ageri zaigu, herri hortako ikurra. Baztango koadrodun taulak berriz, ez du bertze armarrietan bezainbertze garrantzirik.

*Armarrien munduan, ikur noble eta  
zaharrenetakoa da xakeatua, miliziaren  
erretratoa baita. Irudi honek guda-zelaia  
irudikatzen du, arerioen armaden gudariak,  
aurrez-aurre kokaturik lauki zuri eta beltzen gainean.*

población de España” libu-  
ruan.

Antso Azkarra erregeak  
emana dela diote bertze batzue-  
k, 1212an “Navas de tolosa”  
guduan musulmandarren kon-  
trako laguntzaren ordainez. Or-

duan itxura hortako ikurrina  
kenduomenzieten musulman-  
darrei, Udaletxean dagoen hain  
zuzen ere.

Vidal Pérez de Villarreak  
berri honako hau idatzi zuen  
artikulu batean: «Por tratarse



## BAZTANGO ARMARRIAK

# Heraldika Euskal Herrian

**Andoni ESPARZA**

Elgorriaga

Europa osoko ezaugarria zen jakintza hau, Euskal Herrian ere oso errotua egon da. Baina gaur egunean, tamalez, zerbait ahaztua dago, nahiz eta gure kulturaren zati interesgarri bat izan.

## HISTORIA PIXKA BAT

Adituek esaten dutenez, Heraldika XII. mendean sortu ondoren, batez ere Frantzia landu zen eta, laster, Europa osora zabaldu. Euskal Herrian, arrazoi aunitzengatik, beste toki batzutan baino gehiago erabili zen.

Aldebatetik, Nafarroako erresuman hain zuzen ere, frantziar jatorrizko dinastiek bultzatu zuten jakintza hau. Bestalde, euskal populazioaren barnean Aitorren semeen portzentaia beste lekutan baino askoz haundiagoa zen. Gainera, lurralde batzuetan denok zuten estatus hori, hau da, noblezia unibertsala zegoen. Horrela gertatzen zen, adibidez, Bizkaian, Gipuzkoan edo Nafarroako haran batzuetan (Erronkari, Aezkoa, Baztan...). Honengatik blasoiaren kopurua asko igo zen, gehienetan sendi bakoitzak berea sortzen zuelako.

1789ko frantses iraultzaren ondorioz, eta Heraldika aristokraziaren ezaugarri batenez, bere kontrako erreakzioa

sortu zen eta Iparraldean adibidez, armarri asko apurtu ziren.

Espainiakolurraldeetan, bestalde, XIX. lehenengo herenetik aurrera, neurri haundi batean legegaren babesa galtzen du, eta, praktikan, baztertze prozesu bat hasten da hemen ere.

## HERALDIKA ETA KLASISMOA

Ukaezina da mende luzez Heraldikak erabilera klasista izan zuela, nobleen eta gainerako jendearen arteko mugak nabariagoak egiteko.

Hala ere, jakintza hau berez klasista da? Garbi dago ezetz.

Alde batetik, kontuan hartu behar da ez dutela bakarrik pertsona fisikoek erabiltzen. Entitate askok, baita ere, bere sinboloak dituzte eta hor dugu, adibidez, nazio, lurralde, udal eta korporazioen Heraldika.

Egia da, bestalde, gehienetan jakintza hau sendien ezaugarriak egiteko erabil-

Ukaezina da mende luzez Heraldikak erabilera klasista izan zuela, nobleen eta gainerako jendearen arteko mugak nabariagoak egiteko.



tzen dela. Baina Nafarroako XIV. eta XV. mende hasierako ezkutak aztertzen badira, ikusi daiteke orduan jende arrunt askok erabiltzen zituela: artisauek, merkatariek, mandazainek, eta baita mairu eta juduek ere. Geroago, blasoiak nobleentzat erreserbatu ziren, bere erabilera beste guztiei debekatu.

XIX. mendean, legegaren aurrengizaki guztien berdintasuna ezartzen denenean desagertzen da berriro, araudiaren aldetik, zentzu ezkor eta klasista hori.

## GAUR EGUN

Gure mendean zehar egon dira saioak ezagutza hau indartzeko. 1934. urtean adibidez, *Euzko Urengixale Bazkunak* funtzionatzen zuen baina guda zibilarrekin desagertu zen. Bestalde, urte batzuk beranduago, Araban Heraldikaren Museo-a sortu zen: Mendozako torrean, Gasteiz ondoan.

Gaur egunean blasoiak nahiko erabiltzen dira, batez ere etxe barnean, apaingarri gisa. Sarritan ikusten ditugu baita ere publizitatearen arloan ere, eta noizbehinka, kamioietan edo arrantza itsasontzietan. Kultura, kirola edo gastronomia helburu duten elkarte askok ere, sinboloak sortzeko Heraldikan oinarritu dira. Baina gehienetan ez dituzten ezagutza honen arauak betetzen.

Euskal kulturaren zati hau zaindu behar delako, interesgarria izango litzateke, baita ere, sortu berriak diren ezkutuhauen erregistro bat egitea.



Ezker-eskuin: Goien-txea, lehen Seroraren etxea zena. Dirudienez 1570 ingurukoa da armarri hau. Ondoan, Zigaurre auzoko Soraburua, 1611koa. Hirugarrena, Arraiozko Barren-txea, eta azkenik Zigako Indartea, armarri bitxia.




## BAZTANGO ARMARRIAK



Ezkerrekoa Amaiurko Eskortzea etxeko ataria da. Armarrriak erakusten duenez 1610ean egina izan zen. Hemen eskuineko hau, berriz, Iruritako Zapatillenea etxekoa da, 1355. urteko data duena. Hala ere, adituen ustez zaila omen da urte horretakoa izatea, garai haietan ez baitziren arabiar itxurako zenbakiak erabiltzen.



Esquin-eskuineko hori, Arizkungo Barberenea, berriagoa da, XVIII. mendekoa. Garai hoietakoak aberatsagoak dira, eta aunizetan etxea berritu zen data ageri da bertan.



Gaineko armarrri hau Azpilkuetako Apaio-Etxeberria etxean aurki daiteke. Baztango ikurra den taula xakeatuaren inguruan herriko irudiak ageri dira maiz. Behekoa, berriz, Amaiurko Makiteneakoa da, eta Amaiurko aunizetan bezala kanpaiak ageri dira.



Azken bi hauek Arizkuneko etxe zahar bateko armarrriak dira. Ezkerrekoa etxearen aitzinekaldean

ikusten ahal da, eta eskuinekoan, berriz, argi eta garbi ageri da data. 1603koa da etxe hau, Baztanaldean XVII. mendekoen artean aipagarriena.

ARGAZKI HAUETAN AGERI DEN SAILKAPENA PÉREZ DE VILLARREAL EN SAILKAPENARI JARRAITUTA EGINA DA. HONEK DIOENEZ, BAZTANGO ARMARRIEN GEHIENGO ZABAL BATEK EZ DU DATA ZEHATZIK: SOILIK 56 ETXEREN DATA ERRAN DAITEKE SEGURTASUNEZ. HORIETATIK HIRU DIRA 1600 URTEA BAINO LEHENAGOKOAK, 7. ORRIKO GOIENTXEA TARTEAN. HAU DA GARAI HARTAKO DELA SEGURTATZEKO GUTTIENEN GARANTIA EMATEN DIGUN ETXEA. BERTZE GAINERAKOAK, HONAKO AZPISAIETAN BANATZEN DITU PÉREZ DE VILLARREALEK: FRANTSES FORMAKO XAKEATU ARRUNTA, BERTZE FORMA GEOMETRIKOKOAK (LAUKITUA, POLIGONALA...), ERRONBO ITXURAKOAK, BOROBILAK, MISTOAK (XAKEATUA + BERTZE IRUDIAK), XAKEATU GABEKO ARMARRI BEREZIAK, ETA AZKENIK, DESEGOKIAK EDO INONGO TALDETAN SAILKATZERIK EZ DAUDENAK.

*del ajedrezado como figura heráldica tan noble y de tanta antigüedad, porque el escudo aparece entre los doc e primeros de los nobiliarios más antiguos, por la situación del Valle de Baztán cara a Europavía Francia, y por las demás referencias anteriores, me inclino por dar al blasón escaqueado baztanés un origen en el tiempo bastante anterior al indicado por la fecha de la batalla de Las Navas de Tolosa (1212), aunque sin poder fijarla».*

Gehinetan antzuak izaten dira eztabaida hauek. Garrantzi-

tsuagoa da, beharbada, armarrri honen hedapenaren arrazoia

*«Xakeatua Antso Gartzia erregeak  
-Nafarroako laugarrenak- Baztani emandako  
ikur bat dela diote batzuek, frantsesen  
kontrako gudu batean arrisku  
haundiko goeratik ateratzearen ordainez».*

zein den jakitea. 1437-1440. urteetan Baztan Balleak Erregeari irabazi zion auzian gauzatu zela pentsa daiteke, 1439eko ekainaren 30ean, «*declarando ser los dichos vecinos e moradores en la dicha tierra de Baztan, así clérigos como seglares, Hidalgos, Francos e indemnes de toda pecha e servitud*». Egia izan edo ez, dotrina eta ia dogma bihurtu zen sinemen hau, eta azken honetan datza, seguraski, armarrri xakeatuaren arrakasta eta hedapena. ■




# Nafarroa independente izan zeneko historia

**Tomás Urzainki iruindarrak eta berriki zendu den Juan Maria Olaizola iruindarrak idatzi dute "La Navarra marítima". Historialiburu honek zer erran franko eman du joan den udan argitaratu zenez geroztik. Nafarroako Erresuma izan zenari buruzko hausnarketa sakona egin dute, hainbat ikerketa historikotan oinarrituta. Itxura denez, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia Nafarroaren zati izan ziren XIII. menderarte, hau da, Gaztelako erresumak konkistatu zituen arte. Hortik heldu da liburuaren izenburua, idazleek diotenez Nafarroak Europako itsas-porturik garrantzitsuenetakoa izan zuten-eta.**

Historikoki, euskalduna izatea nafarra izatea izandu da. Hala diote "La Navarra marítima" liburuaren bi egileek. PAMIOLA argitaletxeak karrikartu duen historia liburu honetan Nafarroako Erresumaren nondik-norakoak kontatzen dira: nola sortu zen Orreagako gudaren ondotik (IX. mendean), nola berezko antolakuntza juridiko-politikoa eduki zuen, eta nola Nafarroako Erresuma Euskal Herriko itsas-portu guzien jabe izandu zen.

1200. urtean aldatu zen egoera hau. Orain arte historia liburuetan agertu denaren kontra -Sabino Aranak eta Manuel Larramendik historia beren helburu politikoaren arabera interpretatu omen zuten-, Urzainki eta Olaizolak zera segur-



1500. urteko mapa honetan Portugal, Gaztela eta Aragoiko Erresumekin batera ageri da Nafarroako Erresuma.

tatzen dute: urte horretan Gaztelako Erresumak Nafarroako zati bat (Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba, alegia) konkistatu zuela indarrez, geroago 1.512. urtean Nafar Erresuma osoarekin

eginen zuen bezalaxe. Aitzitik, historikoki sinestarazi digute EAEko hiru lurraldeek beren borondatez paktu bat sinatu zutela Gaztelarekin haren baitan sartzeko.

*Historialari hauen arabera, Nafarroako Erresuma, IX. mendean sortu zen.*

*Berezko antolakuntza juridiko-politikoa zuen eta gaur egun EAEkoak eta Kantabriakoak diren itsas-portu guzien jabe izan zen.*

## Itsasgizon nafarrak

Liburuko kapitulu batean Nafarroako Erresumaren itsas-portuak aipatzen dira. Baiona (garrantzitsuena), Donostia, Mutriku, Orio, Hondarribia, Getaria, Bera eta berzte portuek Inglate-



## Irun eta Iruñeko bi nafar

Joan den urteko martxoan hil zen liburu honen egileetako bat: Juan Mari Olaizola. Irunen jaiotako nafarra zela zioen berak. Liburuaren sarreraren aipatzen denez, ongi gogoratzen omen zuen nerabe zelarik aitarekin Iruñeara joan zen lehen aldia. Espainiako gerra zibila hastekoa zegoen oraindik. "Hauxe da gure erregeen Jauregia" erran omen zion aitak, orduko Gobernu Militarra zegoen eraikuntza seinatuz.

Liburuaren berzte egileak, Tomás Urzainki abokatu iruindarrak, Nafarroako azken hugonotea bezala definitzen du Juan Mari Olaizola zena.

Liburu honekin Nafarroaren historia ikasi nahi duten irakurle guziendako mugarrigarrantsua jarri dute. Ikerketa gehiagoren abiapuntu izatea da egileen



rra, Flandria eta Italiako estatuarekin harreman komertzial onak omen zituzten XII. mendean hondar aldera. Garai hartako itsasontzi nafar baten erreproduzioa ere ageri da liburuaren pasarte horretan, bere ezaguerriak eta guzi. GARA egunkariari eskainitako elkarrizketa batean Tomás Urzainki zera dio: Nafarroak betidanik lotura handia izandu duela itsasorekin, eta kostaldeko lurraldeak ondoren ere etengabeak izan zirela itsas-portuak berreskuratze saiakerak. ■

**BETIZUAK**



**Betizuekin lan egiten duten abeltzainendako dirulaguntza**

Betizua eta Nafarroako Behorra arrazekin lanean ari diren abeltzainak dirulaguntzeko konprometua hartu du Nafarroako Gobernuak berriki. 1999 eta 2003. urteen artean 10,5 milioi partituko dituzte abeltzainen artean. Desagertzeko arriskuan daude bi arraza hauek, ITGren arabera Nafarroan 250 bat betizu bertzerik ez da geldituko. Dirudienez, gainera, abeltzainek ez dute interes handirik horrelako animaliekin lan egiteko. Iaz Nafarroa osan 5 abeltzainek bakarrik eskatu zuten dirulaguntza. Bi hauetaz gain badira bertze bertako espezie batzuk desagertzeko bidean daudenak: Nafarroako Zakurra, Piriniotako Ahuntza, Burgeteko Zaldia, Pottokak...

**TURISMOA**



**Cultur 99: inguruko kultura bisitarietarako erakusteko programa**

Nafarroako Mendialdera hurbiltzen diren turistek begira ekitaldi andana prestatu dute Bertiz eta Plazaolako turismo par-tzuergoek. Dantza, kantua, erakusketak eta bertzelako ekimenak uztertzen dira uztail eta abuztu osan. Helburu nagusia bisitariak erakartzea da, Nafarroan barna mugitzen direnak eta baita inguruko herrialdeetatik hurbiltzen ahal direnak ere. Bisitari horiei hemengo ohiturak eta kultur tradizioak erakutsi nahi zaizkie horrela. Dena den, kanpoko jendearentzat erakargarriagoak izaten diren arren, hemengo herritarrek ere parte hartzen dute kultur ekimen hauetan.

**DIRULAGUNTZAK**



**Baztan nagusi Europak partitu dituen dirulaguntzetan**

'5b Helburu' eremuaren barranean sartzen diren eskualde- en artean Baztanek jaso zituen Europar Batasunetik dirulaguntza gehien 1989. urtetik 1993ra. Denetara 628 milioi hartu zituen bazkalekuak hobetzeko, oihanberritzeko, ur-saneamendurako, bideak moldatzeko edo depuradorak egiteko. Baztanen atzetik diru gehien jaso duen herria Bertizara da, guztira 550,8 milioi pezetarekin. Bosgarren tokian ageri da Doneztebe, 242,7 milioirekin.

**UNTXI-GRANJAK**

**Untxi-granja bakoitzak 170.000 pezeta inguru galtzen du hilabetero**

Zerriak urte hasieratik honat bizi duen krisiak untxiaren sektoreari ere eragin dio nabarmenki. Joan den urteko udaberrian untxi kiloak 262 pezetatan saltzen bazen, aurtengomaiatzean 212 pezetatan saldu da, hau da, kostearen azpitik 50 pezeta. Horrek erranahi du hilabete akabailan untxi hazleek galera haundiak izan dituztela. Horren eraginez Nafarroako 89 granjetako batzuk denboraldi batez ixtea erabaki dute, ia krisia pasatzen den eta prezioak goiti doazen pixkan-pixkan.



Arestian aipatu dugu zerriaren krisiak eragin duela untxiaren prezio erorketa hau. Hala da, neurri batean. Izan ere, txerriaren prezio tikiak ikusita, erosleak hoietara jo du erosteko orduan, untxiarena bezalako haragiak

alde batera utziaz.

"Ascuna" da Nafarroako untxi-granjen Elkarteak, eta elkarteko lehendakaria, Rafael Flamarique, kezkatu agertu da afera honengatik, eta untxiaren defentsan ateri da, honen haragiak bertze haragiek baino garsa guttiago eta proteina gehiago dituela erranez.

**• PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIO**

**ZERRIKUMEA**

\* 20 Kilokoa

Azkeneko joera



**ZERRI GIZENA**

\* 95-100 kilo artean Pta./K.

Azkeneko joera



LEHIAKETAK

# Abuztuaren 15ean egingen da Amaiurko Artzai Zakur Txapelketa

Aurtengo Andremari bes-tan egingen da Artzai Zakur Txapelketahonen 24. edizioa. Tradizio handia duen proba da hau, Euskal Herriko artzaletaz gain Frantziatik eta Kataluniatik ere urtero etorri ohi da bakarren bat. Aurten, Federazioarekin istiluak izan dituzte antolatzaileek, eta federazio berribat sortzea erabakidute.

Euskal Herriko Artzai Zakur Federazioak bere haserrea agertu du gisa honetako lehiaketetan arrazako ardi-zakurrekin batera Collie arrazakoak ere parte hartzen zutelako. Amaiurren Colliek tokia izan dute hondarreko urteotan, eta beraz, antolatzaileak ez ziren inondik ere arauak aldatzeko prest. Horik etorri da Federazioaren haustura.

Hori dela eta, epaimahaia aldatu beharrean aurkitu dira, Federazioko jendeak uko egin baitio lan horri. Herriko aditu batzuk izanen dira epaile: Jo-



Aurten, abuztuko beroarengatik, ordu erdi gibeleratu dute lehiaketa. Arratsaldeko 5,30etan hasiko da.

xe Urrutia, Koldo Goienetxe eta Juanito Maixterrena.

Hiru proba bete beharko dituzte zakurrek. Lehendabizi, eta ardirik gabe, banderaz osatutako zirkuitu bat. Ondoren, ardiak hartu eta ardiak artzainaren ondora bildu, eta azkenik, ardiak hesi baten barnean sartu eta


ateri, 9 minutu baino lehenago. Gogoratu iaz eguraldi txarrragatik ez zela txapelketa akitzerik izan, eta duela bi urte Amaiurko Felix Irigoienen Rubi zakurrak irabazi zuela lehiaketa.

### Iazko artzain berak


Aurtengo txapelketarako, iazko artzain berberak deitu dituzte antolatzaileek: Patxi Etxeberria amaiurtarra (Argi), Jor-

ge Oteiza oronoztarra (Jai), Pedro M<sup>a</sup> Oskariz lekaroztarra (Zara), Felix Irigoien amaiurtarra (Rubi eta Izar), Miguel Garaiar oiartzuarra (Mendi), Geronako Jordi Muxat (Coloma), Joxe Antonio Arrillaga eibartarra (Argi), Joxe Urien Abadiñokoa (Bat), Xabier Urien Abadiñokoa (Xarpa), Fermin Aintzua Carrascalgoa (Chico) eta Axarito Garai Yoldikoa (Chica). Zakur hoietatik, 6 dira Collieak eta 5, berriz, artzai zakurrak.

RABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK • PREZIOEN GORABEHERAK •



Azkeneko joera ↓



Azkeneko joera ↓

LITERATURA



### Mariano Izetaren liburu berria

“Baztango Kontuak” du izena baztandar honek argitaratu atera duen laugarren lanak. Hainbat urte baztan balleari buruz idatzi dituen testuak bildu dituzte bertan. Liburuak lau atal desberdin ditu: lehenean Baztango herrietako kontuak aipatzen dira; euskararen egoera, mugak, mendiak, aspaldiko ixtorio zaharrak, apustuak, gerrak... bigarren zatian, hainbat egunkari eta aldizkarian egindako kazetari-lanaren puxka bat bildu dute; bertso-kronikak batez ere. Hirugarrenean, Izetak horrenbertze maite dituen erranairuak sartu dituzte, eta azkenekoan, sorkari-bilduma bat irakur daiteke. Bilduma hau egiteaz Jabier Kalzakorta arduratuta da, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak diruz lagunduta.

## KONTU ZAHARRAK



Leitzako dantzari taldea eta ziztulariak Iruñeko zezen plazan 1930ean. Ebaristo Elduaieen ziztulari famatua da ezkerrekoa, eta eskuinetik lehenbizikoa haren seme Joan. Ondoko ttiki hori Klaudio Tolatxenekoa da, hamabi urte zituela, bera baino haundiagoko danborrarekin.

## Leitzako ziztulari zaharrak

**Lurra aldizkaria-  
ren 15. zenbakian  
Pattatta izengoi-  
tiz sinatzen zuen  
pertsona baten  
artikulu argita-  
ratu genuen. Ge-  
roztik, irakurle fin  
batek zenbait ar-  
gibide gaineratu  
nahi izan ditu gai  
horri buruz. Ia zer  
dioen:**

Lurraren 15. zenba-  
kian esaten du Pattattak,  
nola Leitzen Zortzikon  
Gotzaiari Internaziona-  
lajo ziola Ebarixto Eldu-  
aieenak. Hori ez da hola;  
ziur nago denbora haie-  
tan Ebarixtok etzuela ja-  
kingo Internazionala,  
Ebarixtok oso ongi ze-  
kiena zen "Himno de  
Riego" errepublikako

ereserki edo himnoa eta  
hauxe jo zion Jose Lo-  
pez Mendoza (Burgos-  
ko Frias herrian jaioa)  
Leitzera etorritzen eta  
Gotzaiak esan zion On  
Joakin Tirapu Muñago-  
rri, Leitzeko abadeari,  
erderaz: "badakizu zer  
abesti den soinuariak jo-  
tzen duena? Bai, oso eza-  
guna da Leitzan  
kalejira bat da.  
Goztziak, hau da  
errepublikaren  
"Himno de Rie-  
go" oso gaizki  
hitz egiten du  
apez eta praile-  
taz.

Holaxe hasi-  
tzen da ereserki  
edo himnoa: "Si  
supieran los cu-  
ras y frailes..."  
eta bigarren zati-

ak beste doinu batean  
hauxe dio: "Qué religión  
es esta qué contra Kris-  
to va, los curas son car-  
listas y Kristo liberal".

López goztaia etorri  
zen Iruñera 1899ko ur-  
tean eta egondu zen  
1923. urterarte; eta nere  
osaba Ttikie Zortziko-  
neko, Bixente Huarte

1922. urtean izendatu zu-  
ten Wuhu (Txina) Re-  
sainako gotzai bezala.

Ni 1920. urtean jaio  
nizten ta oso ttikitatik  
ikasi nuen "Himno de  
Riego" doinuan "Hiru  
bostak hamabost dira ha-  
mabost kontuen gerade  
nahi badezu jokatu pin-  
ta hamabost direla". Ne-

re attunari ikasi nion ta  
orduko ume gehienak  
abesten giñun; artzen gi-  
nuen arbelziri edo piza-  
rrin bat edo zotz bat edo  
eskutan behatzak zen-  
batuz edo kontatuz eta  
lurrean edo paper arras-  
toak egin ez eta 15 arras-  
to ateratzen baziren edo  
15 behatz zenbatu joko

*López goztaia etorri zen Iruñera  
1899ko urtean eta egondu zen  
1923. urterarte; eta nere osaba  
Ttikie Zortzikoneko, Bixente  
Huarte 1922. urtean izendatu  
zuten Wuhu (Txina)  
Resainako gotzai.*



Bixente Huarte, Txinan  
gotzai egin zutenean.

<sup>1</sup> EZ NEKIEN ERREPUBLIKA ETORRI ARTE NOLA IZENA ZUEN "HIRU BOSTAK HAMABOST DIRA" DOINU HORTAN ERREPUBLIKAREN ERESERKIE ABESTEN GIÑULA.



## Ebaristo Elduayen, ziztulari famatua


Hona hemen Txistulari aldizkarian Ebaristo Elduayen ziztulariari buruz irakurri ditugunak. Dokumentazio guzi hau –eta puskaz gehiago– Patziku Perurena leitzarrak bildu zuen bere garaian:

Miguel Antonio Barriola «Pastain» –Leitzako bertze ziztulari famatu bat– baino 8 urte gazteagoa omen zen Ebaristo Elduayen. 1866an jaio zen. Bere gurasoak lehengusuak zirenez Erromaraino joan behar izan zuten ezkontzeko baimen eske. Gazte denboran eta ezkontuta gero ere bizimodu nahiko murrizta izan omen zuen Ebaristok. Ziztuarekin ez ezik urritz adarrekin aulkiak, makilak eta bastoiak egiten ere trebea zen gizon kankailu hau, beharrak hortara bulkatua nonbait. Belarriz ikasia zuen ziztua jotzen Ebaristok, bere familian musikarako zaletasun handia baitzegoen. Bere anaia Martin «Behor»ek bi-

bolina jotzen zuen, azpiko argazkian ageritako Stradivarius hori hain zuzen ere. Ziztua sagarrez egin omen zuen berak, danborra azeri larruarekin, eta ttuntuna, berriz, katu larruarekin. Diotenez ziztua garbiro jotzeaz gain tuntunlari bikaina zen, xuxen-xuxena, erritmoa ikaragarri ongi eramaten zekiena. Joxe Zubitur aritu zen hainbat urtetan berekin atabala jotzen, eta hau hil zenean ezkerreko argazkiko Klaudio Tolatxenekoa hasi zen gazte gazterik.

Ebaristo Elduayenek heriotz samina izan zuen, Plazaolako trenak harrapatuta hil baitzen 1931ko irailaren 11ean.

(Txistulari aldizkaria, 153. zenbakia)



Ebaristo Elduayenek erabili zituen danborra eta txistua. Ondoko argazkian berriz, anaia Martinen Stradivarius-a, Leitzan sartu den bakarra.



ongi egiñe zegoan.

Nere ttiki denboran, Allotik etortzen zen, Porfirio Garraza, 4 lor-mando tirakalarikin galera handi bet, mahatsa, udarek, piperrak, tomatek eta abar dendetan saltzen zittuen, lehendabizi Peustenen gelditzen zen eta aberek ere Peusteneko ukullun gabe igarotzen zuen; baita ere etortzen zen Berbintzanatik gizon bat Berbintzana esaten giñiona eta hau asto handi batekin, bi kurpilleko karron mahatsa, udarek eta tomatek saltzen zittun eta Apezeneko eta Txartikoneko erdin arku bat jarri zuen Mateo Mujika Urrestarazu, Idiazabale-

ko semea Iruñeko gotzaiarendortzak itteratorri zenean, eta Berbintzanako astoak agiña jan, arkupetik igarotzean eta astoa lehertu eta neronek ikusi nuen nola zegoen astoa kamio baztarran; gero Berbintzana giza joak ikaragarriko maldizioak bota emen zezkion Mateo Mujika

gotzaiari.

Gertaera hau izango zen 1926. urteanedo. Ordun herriko ume guzik zerbait gertatzen zenean herrin hantxe joaten giñen ikustera. Berbintzana etzen gehiago etorri Leitzera. Nik uste det hau izango zela Kordañek ikusizuen astoa. Primo de Ribera, Lei-

*Ebarixto "Oriamendi" karlistarren  
himnoa jo omen zion eta  
denak bazekiten Primo de Ribera  
Espainiako gobernu  
buruk ez zitula oso maite karlistek.*

## KONTU ZAHARRAK

*Primo de Riberaren familiek*

*Musunen Gogortza ostatu*

*igarozuen udaldea.*

*Urte horretan bakarrik etorri ziren.*



tzera etorri zen Iruñetik, Jose Arazurik bere liburu "Calles y Plazas de Pamplona" dauka argazki bat San Francisco plazan, santu onen idurie jarri eta bedeinkatu zenekoa eta argazkian daude Mateo Mujika eta Primo de Ribera, 1927ko agorrila edo irailan ateratakoa eta hurrengo egunean etorri izango zen Leitzera bere koñata Saez de Heredia eta Jose Antonio, Miguel, Fernando M. Pilar eta Karmen seme-alabak ikustera eta bidenabarrean zerbait eginzuen Udalak eta hortxe ateratzen txintxo-txintxo Ebaristo Elduayen ongi etorria ematera udal gizonakin baten eta Ebarixto "Oriamendi" karlistarren ereserkia edo himnoa jo omen zion eta denak bazekiten Primo de Ribera Espainiako gobernu buruk ez zitula oso maite karlistek.

Gogoan dauket plaza sartzekoan Estankoko atean negonta aldapa gora nere parean jarri ziztaion Martin Goikoe txea berez ezkurarra, Uruguaytik itzuli ta Leitzan bizi zena; Martin jarri zen bere aurrean zela esan zion Primo de Riberrari "Bienvenido sea Ud. Exmo. Sr. D. Miguel Primo de Ribera, no queremos que Ud. se marche, en verano, otoño, ni en invierno, ni en primavera; los antiguos gobernantes jugaban a la pelota más con este nuevo gobierno han sufrido

la derrota y todos los bandoleros bailaron la última jota". Ordun Primo de Ribera sakelatik dirue atera eta eman zion Goikoetxeari, hau ere oso gogoan dauket, nik ez nekien zenbat diru zen beñoesanzuten bost duroko edo ogerleko billeteazela (Goikoetxeak ez zekien ez idazten ezta ere irakurtzen baño ixugarriko etorrie zuen erderazko bertsoetarako) primo Udaletxera joan zen eta enparantza edo plazan Leitzeko dantzariak ingurutxo dantzatu zuten, Aurrelari Joxe Perurena Elola eta aterazioan lagunetako Pilar Primo de Ribera.

Baleztenan etxeak leihoak eta pertsianak jettxi zittuen, hok oso karlistek ziren. Primo de Riberaren familiek, Musunen Gogortza ostatu igarozuen udaldea. Urte honetan bakarrik etorri ziren.


Honezkerok aspertu zera eskutitza hau irakurtzeaz, beño gogoz nahiko nuke Ebarixton eta Berbintzana giza joan gertaerak jartzeko egia agertzeko eta hau ere nik esandakoa jartzen ez bada zere hortxe geldituko dire bi gertaera politak gezurtatuk.

Eskerrik asko eta besarkada handi bet irakurle honen ordez.

\*Ixidro  
Sagastibeltza  
Sukuntza



## OIHANGINTZA



Ezkerreko grafikoan, hostodun arbolak kimatzeko ohikoak diren hiru moduak.

## Nola kimatzen dira hostodun arbolak?

**Egur salerosketan adituak direnek dakiten bezala, egur kimatuaren eta kimatu gabearen arteko prezio diferentzia handia da batzutan. Honek interes handia piztu ohi du kimatze prozesuaren inguruan.**

Kimatuak dauden arbolak prezio hobean saltzen direla ez dago dudarik, eta hurrengo hamarkadetan prezioetan oraindik diferentzia nabaria goa izanen da, gero eta erdipurdiko egur gehiago izanen baita merkatuan.

Dena den, zaila izan ohi da haritzak, pagoak edo bertze arbol hostotsuen kimatzeari buruzko in-

formazioa lortzea.

Bertzalde, ez da atzendu behar kimatzearen tagarri izateko bakantze haundiekin batera egin behar dela. Gero norberak aukeratu behar du nola eta non egin, bere produktio helburuen arabera, landatutako arbolaren arabera, baliabideen arabera...

Kimatzearen helburu nagusia korapilorik gabeko egurra ateratzea da. Horretarako, goiko irudien ageridaren bezala, hiru zati daude eta hiru kimatzeko modu desberdin.

### Itxura emateko tailatzea

Honen helburua arbola xuxen haztea da, eta bistan da, ahalik eta gehien haztea. Irudi ttikian ikusten denez, enborrari kal-

*Kimatzearen helburu nagusia korapilorik gabeko egurra ateratzea da. Horretarako, hiru zati daude arboletan, eta kimatzeko hiru modu desberdin. Kimatzea beharrezkoa da zerra-egurra duten arboletan, beti ere, modu naturalean ez badira behar bezala kimatzen.*



te egiteraino norabide okerrean hazten ari diren adarrak moztu behar dira. Zenbait arbol motetan alferrikakoa da tai-

Kimatzea beharrezkoa dazerra-egurra duten arboletan, beti ere, modu naturalean ez badira behar bezala kimatzen.

## BARATZE XOKOA

### GOMENDIOAK

#### INTSEKTUEN KONTRAKO TRANPAK

Kartoizkoak edo itsekitzen den zintaz egindakoak izaten ahal dira fruitarbolak erasotzen dituzten xomorroen kontrako tranpak. Intsektu aunitzek enborra erabiltzen dute adarretara ailegatzeko edota lurrera jausteko.



10 zentimetroko kartoizko puska bat enborraren inguruan lotu eta buelta bat edo bi eman honen inguruan. Estutu ongi soka

batekin eta hiru-lau astetan behin aldatu. Larbek gerizpea bilatzen dute kartoian.

latzea, batez ere, erretxinadunetan.

#### Kimatzea

Kimatzea adarrak enborraren ondo-ondotik moztuari deritzogu. Adar bizidunekin zein hildako adarrekin egin daiteke.

Kimatzea beharrezkoa dazerra-egurra duten arboletan, beti ere, modu naturalean ez badira behar bezala kimatzen.

Erran dugun bezala, kimatzearen helburua egurren korapilorik ez sortzea da.

#### Kimuak kentzea

Kimu berriak enborretik kentzea da. Bakar-bakarrik zuhaitz klase batzuei kendu behar zaie, batez ere kimatze handi baten ondotik, edo enborrari argiak bortizki eman baldin badio. Kimuak kentzea batez ere populikulturaren ematen da. Helburua enborra garbi mantentzea da, eta kimatzearen osagarria da. ■

## EGUTEGIA Abuztua-urria

### BARATZEAN

#### 1.- Erein

- Espinakak, azenarioak, tipulak, endibiak...

#### 2.- Landatu

- Aza, azaloreak, porruak, kardoak, marrubiak, alkatxofak ...

### LORATEGIAN

#### 1.- Erein

- Primaberak, pentsamientoak, bellis ...

#### 2.- Kimatu

- Hondatuak dauden adarrak, bai frutaleian eta bai lorategiko arboletan ere.



eman gainera, ez baita gomendagarria arbolaren azalaren gainean ematea. Espatula baten laguntzaz, eman kola buelta guzian, eta tarteka begiratu ea zer nolako intsektuak gelditu diren itsekiak. Horrek zure baratzea hobeki eza gutzen lagunduko dizu.



Itsekitzen den zintarekin egindakoaren helburua goiti eta behiti dabilzan intsektuak harrapatzea da, zinaurriak adibidez, hauek pulgoia hedatu egiten baitute. Lehendabizi ongi estutu arbolaren inguruan, eta gero kola

## DIRULAGUNTZAK

Informazio gehiago: CARREFOUR NIREA ☎ 210018

Baztan ☎ 580561 Bortziriak-Malerreka ☎ 451654 Leitza ☎ 510009



### NEKAZARITZA

#### Baso-ustiapenendako dirulaguntzak, 1999 eta 2000. urteetarako.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 30. zenbakian argitaratu zen (1999ko martxoaren 10a).

**Norendako:** Nafarroako mendien jabe eta elkarreendako, publiko zein pribatuak izanik ere.

**Muga epea:** 1999ko abenduaren 15a.

#### Aktibitate artistiko eta kulturaletan parte hartzeko laguntza

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 21. zenbakian argitaratu zen (1999ko otsailaren 17a).

**Norendako:** 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen Nafarroan bizi diren pertsonendako.

**Muga epea:** 99ko irailaren 15a.



### HEZKUNTZA

#### Euskara helduei erakusten dieten entitate pribatuendako dirulaguntza

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 22. zenbakian argitaratu zen (1999ko otsailaren 19a).

**Norendako:** Nafarroako Euskal-tegi eta Gaueskola pribatuak.

**Muga epea:** 99ko urriaren 29a baino lehen, 1999-2000 urterako.

### KULTURA

#### Jardunaldiak, kongresuak, kultur egitarauak antolatu eta haietan parte hartzeko dirulaguntzak

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 21. zenbakian argitaratu zen (1999ko otsailaren 17a).

**Norendako:** 1999ko urtarrilaren 1a baino lehen Nafarroan bizi diren pertsonendako.

**Muga epea:** 99ko abuztuaren 31a.

#### Kultur elkartrukeetan parte hartzeko eta talde artistikoen birak diruz laguntzeko programa

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 21. zenbakian argitaratu zen (1999ko otsailaren 17a).

**Norendako:** Nafarroan finkatuta dauden entitate legalendako.

**Muga epea:** 99ko abuztuaren 31a.

\*\*\* Dirulaguntza hau en edo bertzelakoen gaineko informazio gehiago eskatzeko NIREAra deitu.

## PRENTSARI BEGIRA

### Arizkungo eskultore agotea

Xabier Santxotena arizkundarra hainbat urtez Gasteizko Portalón ja-tetxean sukaldari modura aritua da, bainan duela pare bat urte eltzeak alde batera uztea erabaki zuen. Gaur egun, brontze, egureta burnizko eskulturarak egiten ematen du asti gehie-na. Sukaldearekin batera, hori izan da betidanik Baztango agote honen bi afizioetako bat, orain ofizio ere bihurtua.

Badira bi urte eskulturara osoki dedi-katzen dela, bai, bainan ez da atzo goizekoa artearekiko bere zaletasu-na. 30 urte baditu Xabier Santxotena

egurra, bumia eta brontzea zizelkatzen, eta zeramikarekin ere egin ditu saiakera batzuk. Bere lanak Arizkungo Bozate auzoan duen museoa ikus daitezke. Dena den, eskultura bezala sukaldaritzaren arte bat da berez. «*Kerketa zentru bat da. Ederrena be-zeroarekin hartu-emanak izatea da, eta berarentzat prestatu duzuna transmititu ahal izatea. Eskulturrekin gauza bera gertatzen da: ikusleari zuk pentsatu eta sentitu duzuna transmititzea lortzen baduzu zoragarria da.*

(Mugalari, Gara • 99-VII-17a)



## AZKEN ORRIALDEKOAK

**Abuztuaren 12an Mikel Markez bakarlariak joko du Elizondon**

"Cultur 99: Turismoa eta Kultura" egitarauaren barranean Mikel Markez abeslari gipuzkoarren kontzertua izanen da abuztuaren bigarren ortzegunean. Elizondoko Arizkunenea kultur etxean ariko da kantari arratseko 9etatik aitzinera. Abesti erotikoen bildumaren ondotik, Markezek irailean karrikaratuko du bere azken lana, eta pentsatzekoa da kontzertu honetan zenbait abesti berri sartuko dituela.

**Petti bakarlari beratarrak diskoa ateriko du irailean**

Gaztelupeko Hotsak disketxeak Pettiren lehen diskoa argitaratuko du irailean. "Amets bat" izeneko diska iazko irailean hasi ziren grabatzen Berako aduanan, eta aurtengo martxoan akautu. Maikel tekniko beratarrak egin ditu produkzio lanak eta soinu moldaketak.

Guzira 11 kantu sartu ditu bakarlari beratarrak. Erran behar da bertze hainbat musikariren laguntza ere izandu duela abestiak osatzeko orduan: Irazoki anaiak, Joseba Irazoki, Tellexea anaiak, Beñardo Goietxe, Cristina (Big Crunch), Saioa Ataun, Garbiñe Goia...

**Gipuzkoar trikitilariak irabazi dute Lesakako finala**

Baztan, Malerreka eta Bidasoako bigarren trikitixa txapelketa Eneko Bergara eta Markos Landa gipuzkoarrek bereganatu zuten. Eskualdeko trikitilariak ere beren lana aski poliki egin zutela erran behar da: Bigarren tokian Nekane Etxandi (Lesaka) eta Jasone Mitxeltoarena (Etxalar) sailkatu ziren; hirugarren Oihana Almandoz (Lesaka) eta Nagore Ansalas (Etxalar); bosgarren, Joseba Olagarai (Etxalar) eta Arantxa Zubieta (Etxalar); eta zazpigarren Estitxu Urroz (Doneztebe) eta Estitxu Elgorriaga (Lesaka).

# «Hemen inguruan badira gizonak milaka kilometra egin dituztenak kontrabandoan»

**Zenbat urterekin hasi zineten gaueko lanean?**

**Jean Laborde:** Gu 15-16 urtetan ibiltzen ginen pittat kontrabandoan, gure burua frogatzeko. Botoila batzuk pasatzen eta... gero nik zaldi, behi eta zerriak pasatu ditut gehienbat.

**Manex Bergara:** Gurasoek bidaltzen zintuzten mentetarat puskak erosteko, ainitz merkeagoak zirelako, eta haur-haurretatik ikasten genuen goarderi ihes egiten. Hori odolean sartzen da.

**Ze karga pasatzen zenuten?**

**MB:** Denetarik: orraze xehe-tik hasi eta mekaniko modernoraino: zingarra, alkohola, tabakoa, kafea, aziendak, arroparia... denak. Gero gerra denboran sakarina eta autotetako neumatikoak.

Ni ez nintzanez hemen bizi, Paris ondoan bizi nintzanez, Gerra denboran egin dut kontrabanda gehiena, aziendekin, zerriekin... mementu batez eraman genituen Arrosako lagun batzuekin posta irriatiak, emeteurrak. Eta gibelakoan ez hutsik etortzeko hemengo zenbait ostaturantz ekartzen genituen: Porto eta Ricard, zernahi gauza.

**Guardak ere erne ibiliko ziren zer atxemango...**

**JL:** Bai. Guardak behar ziren zaindu, zinema pixkat egin behar zen. Batzutan beurrekin trago batzuk egin eta han atxikitzen genituen bertzeek gibeletik lana egiteko. Harrapatu ezkerreko sosa kentzen zuten. Muga izkin hoietan arrisku haundiagoa zen:

**Jean LABORDE**

eta

**Manex BERGARA**

KONTRABANDISTA OHIAK

EZ ZEN HORI BI SARATAR HAUEN EGIAZKO LANBIDEA, BAINAN GAUEZ EHIALARRE AUZOTIK BERA ETA ETXALAR-KO MUGARAINO HAMAICA BIDAI EGINAK DIRA BIAK ERE. KONTU ZAHARRETAZ EDERKI OROITZEN DIRELA ERAKUTSI DIGUTE.

## «Batzutan guardekin trago batzuk egin eta han atxikitzen genituen bertzeek gibeletik lana egiteko»



neri behorra ere hil izan nauten mendian, uste gizona zen, tirokatu eta adio potoka.

**MB:** Han mugan ginen karabineroen beldur. Hek lehenik tiratu eta gero egiten zuten galde. Guarda frantsesek berriz airera tiratzen zuten, baina mugan badire gurutzeak karabineroek hildako jendearenak.

**Zein zen gau batean egiten zenuten ibilbidea?**

**MB:** Hegoaldeko anaiek ekartzen gintuzten karga mugaraino, eta guk mugan har-

tu eta Donibane edo Baiorarat sartzen genuen. Badire gizonak milaka kilometra egin dituztenak. Paltotarrak, konparazionerat, ez da sinesten ahal. Bi anaia baziren ikaragarri ibiltzen zirenak, gauero, gauero, gauero.

Hor zaharren egoitzan zelarrik bisitan joan eta galdegin nion bati: «*egia duk Bizente, hik hamairu gau egin ditukela lerroan kontrabandand?*» eta harek... «*ez, ez duk egia, Manex, zeren ez baitiat hamairu gau egin hamalau egin ditiat. Hamabosgarrenean erori nintzuan*». Lagunek bizkarrean ekarri zuten etxera.

Gazteria guzia hortan zen, zenbat eskipaia ote ziren hemen! 8, 10, 12 gizoneko andanak. Hala ere, zuzen ez litake erran zenbat jende ibiltzen zen: Saran beharbada 10 koadrila, edo 20?

**Lurra****Landa Lurraldeari buruzko aldizkaria**Argitaratzailea: **Lurra** Kultur Elkarte • Herriko Etxeko Plaza, 1

• 1780 BERA ALE honetan parte hartu dute: EHNE Nafarroako eta UAGNko teknikoek, eta beste zenbaitzuk.

**Maketazioa eta erredakzioa:** Asier Gogortza. **Inprenta:** Gertu**Tirada:** 7.100 ale **Lege gordailua:** NA-966/1998

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

**Larunbata 14:**

**7,30etan** altxaferoa bes-tei hasiera emanez. Gero txistulariak auzoz auzo ibiliko dira. **9etan** Baztan zopak Herriko Ostatuan. **12etan** dantzaldia EZTANDA taldearekin.

**Igandea 15:**

**Amabirgin Eguna**  
**10etan** kalejirak. **11,30etan** Meza Nagusia. Ondoren hameketakoa Herriko Ostatuan. **6etan** pilota partiduak: Jaurena eta Huarte, Baleztena eta Eskuderoren aurka. Leitza eta Baleztena, Altzugarai eta Nabaroren aurka. Ondotik, dantzaldia KIKI BORDATXO taldearekin. **12etatik aitzina** dantzaldia KIKI BORDATXO taldearekin.

**Astelehena 16:**

**10etan** kalejirak. **1etan** aizkora apostua: Mikel Mindegia eta Patxi Mindegia, Luis Mari Belarra eta Olasagastiren aurka. **6,30etan** antzerkia KUKUBILTZO taldearekin. Antzeslana: **Kukubel. Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia ANGEL MENDIBERRI akordiolariekin.

**Asteartea 17:**

**Haurren Eguna**  
**10etan** kalejirak. **11,30etan** Plater Tiraketa. **Goizez eta arratsaldez** karts, Gaztelu haizatuak,

ohe elastikoak, etab..., Lau Haizeta kultur koordinakundearen eskutik. **5,30etan** mustxapelketa azkarra. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia MIKEL ETA AINARA bikotearekin.

**Asteazkena 18:**

**10etan** kalejirak. **2etan** herri bazkaria Xebastian Lizaso eta Jexux Mari Irazu bertolariekin eta Xapre eta Zaharra trikitilariarekin. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia EZTANDA taldearekin.



Amabirjinaren Parrokia eta Oia zaharra.

Albistur, 39-K  
627542  
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**DONEZTEBEN**

**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak  
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA  
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

**SAROB**  
okindegia

**SANDERS** Pentsuak  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**ZALAIN**  
JATETXEA

Zalain Auzoa  
© 63 11 06  
BERA

EG. UNEKO MENJUA FITA KARTA

**Boda eta banketeak ematen dira**

### Larunbata 14 BEZPERA

**Gaueko 9etan** Baztan-Zopak Herriko Ostatuan. **Gauerdiko 12etan** arbolaltzatzea eta joaldunen ibilaldia. Ondotik dantzaldia IMUNTZO eta BELOKI taldearekin.

### Larunbata 15 Amabirgin Eguna

**8etan** argi soinuak herriko taldearekin. **11etan** Meza Nagusia. Meza ondoren, txistulariak eta Zubietako joaldunak. **12,30etan** bertso saioa: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña. **Eguedian** aizkora apostua: Patxi Mindegia eta Luis Mari Belarra, Antonio Jaunarena eta Jose Antonio Loiarteren aurka. **7etan** dantzariak. **Arratsaldean** eta **gauaz** dantzaldia ALMEN taldearekin.

### Astlehena 16 Gazteen Eguna

**8etan** argi soinuak betikoekin. **11etan** pilotapartiduak herritarren artean. **5etan** futbito partidua. **10etan** Zubietako dantza luzea. **Arratsaldean** eta **gauaz** dantzaldia ALMEN taldearekin.

### Astearte 17 Haurren Eguna

**8etan** argi soinuak herritarrekin. **12etan** herritarren arteko herri kirolak. **5etan** haur jokoak. **Arratsaldean** eta **gauaz** dantzaldia ALMENTaldearekin.



**Txupinazoak eta arbolaren goratzeak hasiera emanen diote aurtengo festei. Duela zenbait urte, herriko sokatira taldearen saioak ikusmin berezia sortu zuen. Aurten ere izanen da herritarren arteko herri kirol saiorik.**



**Astearte 18  
Herriaren Eguna**  
**8etan** argi soinuak. **11etan** mus txapelketa herrikoentzat. **4,30etan** plater tiraketa bertakoentzat. **Arratsaldean** eta **gauaz** dantzaldia MUGANIX taldearekin.

## ETXANDI TXOKO jatetxea

Bazkari, afari  
eta gosariak

ITUREN  
Tfnoa: 45 04 91

## ORMAETXEA OKINDEGI-OSTATUA

*Besta zoriontsuak pasa!*

Tfnoa: 948 45 01 69 • ZUBIETA



## BELARRA OSTATUA - JATETXEA

Amezitia karrika • DONEZTEBE  
Tfnoa: 948 45 03 06

## Javier Manterola

TEKNIKO  
INSTALATZAILEA  
iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 948 630 031 • BERA



Lore eta landareak  
© 948 63 78 26  
Frain auzoa • LESAKA

## ERRANDONETA OSTATUA

*Ongi pasa  
herriko festak*

© 948 450216  
ZUBIETA



Duela urte mordoxkako argazki honetan, eskolako haurrak ageri da, maistrua eta apezarekin batera.

Ezkurrako Udalak utzitako argazkia

**Larunbata 14:**  
Gaueko 9etan herri afa-  
ria AINARA eta ARKAITZ  
trikitilarien animazioare-  
kin, pestei hasiera emateko.

**Igandea 15**  
Amabirgin Eguna  
11,30etan Meza Nagusia

Ama Birjinaren ohoretan.  
1etan aizkora apustua:  
Etxeberria, Arria V. ren aur-  
ka. 5etan pilota partiduak.  
Arratsaldean eta gauean  
dantzaldia ATSEGIN taldearen eskutik.

**Astelehena 16**  
5,30etan herri kirolak:

Sokatira, harrijasotzaile-  
ak eta aizkora apustua.  
Arratsaldean eta gauean  
dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Asteartea 17**  
Umeen Eguna  
Goizean eta arratsaldean  
umeen jokoak: Karts eta

Gaztelu Haizatuak.  
5,30etan mus txapelke-  
ta. Arratsaldean eta gauean  
dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Asteazkena 18**  
1etan aizkolariak:  
Mindegia - Belarra  
Telletxea eta beste aiz-

kolari baten aurka. 2etan  
herri bazkaria trikitilarie-  
kin. 5,30etan pilota par-  
tidua. Ondoren, trikitixa  
AINARA eta  
ARKAITZekin Gaueko  
12,30etatik 4ak arte dan-  
tzaldia ETZAKIT taldearekin.

## Hostal EZKURRA

JATETXEA  
TABERNA

- Parrilla
- Terraza
- Banketeak



Kale Nagusia, 4 • EZKURRA • © (948) 61 50 80



## APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450133  
948 451541  
Faxa: 948 450 334  
**DONEZTEBE**

**Abuztuak 7, larunbata Umeen Eguna**

Goizeko 11etan umeentzako jokoak. Toka eta txake txapelketak. **5,30etan** umeentzako jokoak. **7etan** txokolatada. **8etan** «TTR» Traperos rel Rio taldearekin haurrentzat jaialdia.

**Abuztuak 8, igandea Umeen Eguna**

**9etan** diana, herriko txistulari bandarekin. **11etan** meza, haurrak bertako jantziekin joanen direlarik. **12etan** pilota partiduak. **5,30etan** Kale Antzerkia TTR Traperos del Rio taldearekin. Ondoren umeei Udak ematen dien berendua eta gero «saltsa» (bainujantziakekarri). **8etan** XAPÓ trikiritixa taldearekin dantzaldia.

**Abuztuak 13, ostirala Gaueko 11etan** kontzertua Plazan JOXE RIPIAU eta ALAITZETA MAIDERekin. *Antolatzailea:* Goizuetako Udala. *Laguntzaileak:* Herriko Tabernak eta Ikastolako txosna.

**Abuztuak 14, larunbata Amabirjin bezpera**



Peñen Eguneko zezenetan, berendua egiten dute plaza erdian peñakideek. Argazkiak hala pentsarazten badu ere, zezena ez dute jaten.

**12etan** Udaletxeko bal-koitik jai ei hasiera eman-go dien itxaferoa botokoda. Ondoren, trikitalarien banda, erraldoi eta buruhandien konpartsak herriko kaleen barrena ibiliko dira. **4etatik 8etara** haurrentzako gaztelu puzgañriak, motoak... **5etan** Plater Tiraketa Basauntz ehiztarien elkarteak an-

tolatua. **6etan** toka txapelketa. **8,30etan** Umora Ona peñaren irteera ZIZ-KUITZ txarangarekin. **Gaueko 12etan** gauparsa IMUNTZO ETA BELOKI taldearekin eta ZIZ-KUITZ txaranga herriko kaleetan.

**Abuztuak 15, igandea Amabirjinaren Eguna Goizeko 7etan** diana

Tolosako dultzaineroekin. **8etan** entzierroa. **10,30etan** Meza Nagusia. Segidan Amabirjinarekin ohiko prozesioa. **12etan** txistularien banda eta erraldoi eta buruhandien konpartsa herriko kaleetan barna ibiliko dira. **12,30etan** 'bonba japonesak' umeentzako opariek. **1etan** eskuz bina-

kako bi pilota partidu, bat gazteen artekoa eta beste: Apezetxea-Errandonea, Arbizu-Iparragireren kontra. **6etan** zezenak. **8etan** Mutrikuko herri kirol taldearen emanaldi ikusgarria. **10etan** pre-soen aldeko afari herrikoia Umora Ona elkartean eta ondoren kalejira. **12etan** dantzaldia AR-

**IRU BIDE**  
ERRETEGIJA  
Tfnoa: 948 637 127  
LESAKA

**ZABALETA TABERNA**  
*Ongi pasa herriko festak*  
Nagusia 42 • © 948 514063 • GOIZUETA

**GOIZ ARGI Taberna**  
*Festa zoriontsuak opa dizkizuegu*  
Tfnoa: 948 51 40 61 - GOIZUETA

**EXKIÑA**  
jatetxea

- Pintxoak
- Baghari eta afariak
- Bokatak
- Menua


© 948 514102 • GOIZUETA

**EL ORDI** **JATETXEA**  
**Ongi pasa festetan!**  
Kale Nagusia,  
Tfnoa: 948 51 40 39  
GOIZUETA

**UMORE ONA**  
**ELKARTEA**  
*Festa ederrak pasa!!*  
GOIZUETA

**GYRE TXOKO TABERNA**  
*Festa on batzuk pasa*  
Herriko Plaza, Tfnoa: 948 514097 - GOIZUETA





Ezkerrean, festetako argazki tipikoan, Andres, «Luxea», Ixaak zena eta Alfontxo. Goian, trikitalarien kalejira, duela lauzpabost urteko festetan.

ARGAZKIAK: Estebanek utziak

KAITZtaldearekin. Ondoren ZIZKUITZ txaranga. **Abuztuak 16, astelehena 11,30etan** Gipuzkoakobi idi pare indartsuren arteko dema. **1etan** eskuz bina koto partida: Saralegi-Navarro, Larraya-Martinez de Eulateren kontra. **6etan** zezenak. **8etan** Añorgako

dantza taldearen emaldia. **12etan** dantzaldia LAIOTZ taldearekin. Ondoren ZIZKUITZ txaranga. **Abuztuak 17, asteartea 7etan** diana herriko trikitalariekin. **8etan** entzierroa. **12,30etan** bertso saioa, Xebastian Lizaso, Andoni Egaña, Jon Sara-

sua, Xabier Silveira, Xabier Legarreta eta Estitxu Arozena. **6etan** zezenak. **7,30etan** ASPE enpresako pilotari profesionalen arteko bi partidu haundi. **12etan** dantzaldia TRIKITAKE taldearekin. Ondoren ZIZKUITZ Txaranga.

**Abuztuak 18, asteazkena Ezkondu eta Umore Ona peñaren Eguna 12,30etan** bi pilota partidu interesgarri. Lehendabizikoa lau terdiaren barrerean: Muruamendi-araz-Leitza. Ondoren, aspaldiko ohitura jarraituz, Goizueta Aranoren kontra. **3etan** Umore Ona peñaren bazkaria.

Ondoren, **5ak** aldera, ZIZKUITZ txarangarekin kalezikaleibilikodira. Kalejira berezi hau bukatutakoan zezenak. Ondoren dantzaldia JOSELU ANAYAK taldearekin. **12etan** dantzaldia JOSELU ANAYAK taldearekin. Herriko jaiei amaiera emateko ZIZKUITZ txarangarekin kalejira.

**UNTXALO**  
**LIBURUDENDA • PAPERTEGIA**  
*Festa on batzuk opa dizkizuegi*  
**GOIZUETA**

**EROSLE**  
**GOIZUETA**  
 Kale Nagusia  
 Tel.: 948 514046

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena  
**Frexkuena**  
**zugandik**  
**hurbilago**

**ttipi-ttapa**  
**internet**  
<http://www.jald.com/ranagosa/ttapi-ttapa>  
 E-mail: ttapi-ttapa@ranagosa.jald.com



Goizuetako  
 Udalak  
 festa onak opa  
 dizkizue  
 Goizuetar eta  
 bisitari guziei



### Larunbata 14:

**12etan** txupinazoa Udaletxetik. **5etan** II. Artzai Txakur Lehiaketa, Larrea elkarteak antolatua. **10etan** XIV. Mus txapelketa herrikoia. Ondoren dantzaldia **BASAJAUN** taldearekin.

### Igandea 15

#### Amabirjin Eguna:

**11etan** Meza Nagusia, udal korporazioa bertan izango delarik, herriko dantzariak lagundua. Ondoren hamaiketako Udaletxean. **1etan** pilota partidua: Atano XII-Atano XIII, Ruben-Titin IIren kontra. **6,30etan** sokatira (Aresio). **7etan** aizkora apostua: Jaunarena-Etxeberria, Patxi Mindegia-Arria V.ren kontra. **8etan** dantzaldia **ZIRIKA** taldearekin. **12,30etatik** goizaldera **ZIRIKA** taldea.


### Astelehena 16

#### Umeen Eguna:

**11etan** pilota partidua herriko gazteen artean: Goikoetxea eta Barandarrain, Olazabal eta Onsaloren kontra. **12etan** mus txapelketaren finala. **12etatik 2etara** eta **4etatik 7etara** haurren jokoa plazan (5 kart eta 2 gaztelu puzgarri jarriko dira, baita zezen mekanikoa ere). Plater hausketaren herrikoia. **6,30etan** dantzariak. **Arratsaldean** eta **gauetan** dantzaldia **ZIRIKA** taldearekin.

### Asteartea 17:

#### Jubilatuaren Eguna




**Xexenak eta sokatira saio izango dira aurtengo egitarauan ere.**

### 11etan Meza.

Ondoren Joxe Agirre eta Joxe Lizaso bertsolariak. 2etan zikirojatea. Ondoren bertsolariak. **7etan** aizkora apostua, Olasagasti eta Peñagarikano, Arrospide eta Mindegiaren aurka.

**Arratsaldean** eta **gauetan** dantzaldia **ZIRIKA** taldearekin.

Egunero, arratsaldean eta goizaldean, xexenak.



**LESACA**

**MOLDAKETAK KONPONKETAK**

Gizon eta emakumeen arropan konponketak eta moldaketak egiteko zerbitzu azkarra

**RETOUCHERIE**  
de  
*Manuela*

Colon Pasealekua 64, behea (Trenbideko zubiaren ondoan)  
☎ 943 660 292 • IRUN

**ROMANO PINTURAK**

Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa eta sintasola.

☎ 948 63 11 37 / 649 84 01 49 • BERA

**AMEZTIA**

**Jatetxea - Hostala**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

**Ortzirala 27:**

**12etan** Herriko Etxetik suziriabotakoda, besteihakiera emanaz. Ondoren, herriko musikalarien kalejira. **2etan** herri bazkaria. **4etan** mus txapelketari hasiera emanen zaio. **8,30etan** zopa jatea Herriko Ostatuan. **12etan** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Larunbata 28:**

**San Agustin Eguna**

**7etan** Aurora eta honen bukaerangosarieder bat. **10etan** kalejira herriko txistulariekin. **11etan** Meza Nagusi kantatua. Ondoren, bazkalaurrekoa. **5etan** plater tiraketa herrikoentzat. **Arratsaldez eta gauzez** Gaupasa-dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Igandea 29:**


**Haurren Eguna**

**10etan** kalejira herriko txistulariekin. **Goiz eta arratsaldez** haurrendako jokuak: kotxe ibilaldia eta standarpuzgarriekin. **4etan** plater tiraketa libre. **6etan** pilota erakusketak Legasako frontoi berrian. **Arratsaldez eta gauzez** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Astelehena 30**

**Herrikoen Eguna:**

**10etan** kalejira herriko txistulariekin. **11,30etan** mus txapelketaren finalak. **2etan** zikiro-jatea.



**1971. urteko beste-tan, betizuak eta zikiro-jatea.**

Monica Migeltorenak utziak

**Arratsaldezetagauzez** dantzaldia ONOFRE akordeolariarekin.

**Astelehena, irailak 8 Santa Leokadia Eguna**

Santa Leokadiaren Eguna ospatuko da Legasako ermitan.

**Antolatzaileak:**

Legasako Gazteaketa  
Legasako Kontzejua.



**KATTU**  
ostatu - jatetxea  
Plater konbinatuak eta menuak  
☎ 948627573 • LESAKA

zapatak  
osagarriak  
konponketa  
**kalotxa**  
Kanttonberri 6 Bera  
☎ 948 631516

**ie Iriarte-Echandi, s.l.**  
• Aholkularitza  
• Artekaritza  
• Aseguruak  
Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxe: 948 631169

**La Asturiana**  
ostatu • jatetxea  
Tfnoa: 948 58 04 63  
Santiago 51, ELIZONDO

**GAZTANDEGIA**  
**LIZUN** Etxeko Ardi Gazta  
Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

ARROPA DENDA  
**FANTXIKE**  
MERCERIA  
JAIME IZKRUJETA, 24  
TFNO. 580312  
ELIZONDO  
**Gazteendako era guzietako arropa**  
**Lanerako arropa**

**SOULE**  
**Hileta artea**  
☎ 948 453 444  
☎ 908 779 903  
ARIZKUN

### Ortzirala 20

12etan besta hasierako txupinazoa botako da. Ezkil-jotzea. 3etan herriko gazteak kalejiran ibiliko dira akordiolariarekin. 9etan herriko jatetxeetan baztan-zopak eta txurita-beltxak emanen dira. 12etatik 5etara dantzaldia IZOTZ taldearekin.

### Larunbata 21:

#### Haurren Eguna

11tan haurrendako jokopak. 4etan plater tiraketa. 5etan haurrendako gaztelu puzgarria, moto tikiak... 6etan txokolatada. 8etan trikixita. 12etatik 5etara gaupasa LISKER taldearekin. Goizaldean zingar-jatea.

### Igandea 22:

10,30tan txirringula laisterketa. 4,30etan futbito partidua: emakume ezkonduak ezkongabeen kontra. 6etan herri kirolak. Arratsaldean eta gauz ALMEN taldea. 11tan su-artifizialak.

### Astelehena 23:

#### San Felipe Benicio Eguna

11etan Meza Nagusia. Gero, dantza eta hameketakoa. 3etan I. Bidasoa ibaiaren jautsiera. 5etan herriko mus txapelketa. Arratsaldean eta gauz GAUBELA taldea.

### Asteartea 24:

10etan futbito partidua. 11,30etan herriko gazteen artean sekulako desafioa: Alde batetik, «Destroyer» eta «Cadena 4» motozerraz eta bertze



**Duela hiru urteko San Felipe egunean, dantza saioa herriko plazan. Eskuineko argazkian, herriko neska-mutikoak erraldoi eta buruhandiekin batera.**

**ARGAZKIAK:**  
Narbarteko Gazteek utziak

aldetik, desbrozadorearekin, «Espera». Lana: 25 minutuz zeinek iratzte gehiago moztu. 2etan zikiro-jatea (txartelarekin). Arratsaldean eta gauz dantzaldia MIKEL SALABERRI akordeolariarekin. Goizaldera, «Gaixoa Ni» kantatuz bestak akituko dira.



## H. Lopez

### iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas instalazioak
- Iturgintza indutista
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26  
Mug.: 617 34 99 44  
NARBARTE

## ttipi-ttapa

7.100 harpidedun  
24.000 irakurle

Zure publizitatea  
etxe xoko  
guzietan

☎ 948 631188



## J. RAMOS

Zolak akutxilatuta eta  
barnizatzen dittut

☎ 948631342 BERA • ☎ 948637172 LESAKA

## GRUPO ZURICH



ASEGURO OROKORRAK  
Itzea, 4 — BERA — ☎ 948 63 07 63

## NARBARTEKO HERRIKO OSTATVA

MENUAK eta KARTA

*Besta zoriontsuak  
opa dizkizuegu*

San Andres 1  
Tfnoa: 948 592519  
NARBARTE

## ETXEBIZITZAK

101. Saldu  
102. Erosi  
103. Errentan emateko  
104. Errentan hartzeko  
105. Etxe konpartituak  
106. Bertzelakoak

## GARAJEAK / LOKALAK

107. Saldu  
108. Erosi  
109. Errentan emateko  
110. Errentan hartzeko  
111. Bertzelakoak

## LURRAK / ORUBEAK

112. Saldu  
113. Erosi  
114. Errentan emateko

zein erraza den  
zure anuntzioa  
hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko  
Iparraldetik 00-34-

# 948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

115. Errentan hartzeko  
116. Bertzelakoak

## ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak  
202. Pintoreak

203. Elektrizistak  
204. Iturginak  
205. Zurginak  
206. Mendi lanak  
207. Garraioak  
208. Bertzelakoak

## LANA

301. Eskariak  
302. Eskaintzak

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

## ADOS

**IRURITA.**  
- Lur eremu  
eraikigarria salgai.

© 948 451 841

## GOIKO SL

LEITZA. Manuel Lasarte  
kalean eraiki behar diren  
12 baxera eta 6 garaje plaza  
salgai.

© 649 476 615 • 948 510 346

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

## ADOS

- Eskaera handia  
dagoenez, bor-  
dak, baserriak,  
lur-eremuak,  
bajerak etab.  
erosi nahi dira.

© 948 451 841

## ETXEBIZITZAK

### 105 ETXE KONPARTITUAK

BARAÑAIN. 3 lagun behar  
dira pisua osatzeko. ☎ 948  
510 204.

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK

## ARANTZA ZURGINDEGI

Jose Miquel Errandonea

Klase guztietako  
zurgin lanak

Osina auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

Mutil bat behar da zurgin  
lanetan (teilatuetan...) ari-  
tzen dakiena. ☎ 948 623  
130 (jan-orduetan).

## KULTURKARI

### Lan eskaintza

ZUZENDARI  
KOMERTZIALA  
BEHAR DA

Baloratuko da:

- Eskualdea ezagutzea.
- Salmentan esperientzia.
- Antolaketa kapazidadea.
- Marketing eta enpresa administrazioan ezagutza.
- Autoa izatea.

Bidali Curriculumak  
lehenbailehen helbide  
honetara:

**KULTURKARI**  
Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA

## IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak  
402. Akademiak

## MOTORRA

501. Salerosketak  
502. Tailerrak

## ANIMALIAK

601. Emateko  
602. Salerosketak  
603. Klinikak

## DENETARIK

701. Galdu / aurkituak  
702. Salerosketak  
703. Bertzelakoak

## HARREMANAK

Esperientziadun sukaldaria edo sukaldari laguntzaila behar dugu. ☎ 948 631 106.

Beran neska bat behar da egun erdiz urte bateko haurra zaintzeko abuztuan. ☎ 948 314 090 (goizez) 943 273 618 (17etatik 20etara).

Emakume bat behar da taberna lanerako eta mahaia serbitzeko Alkozko Herriko Ostatuan, abuztuaren 22tik aurrera. ☎ 948 510 500 edo 629 745 740.

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK

Ford Escort 1.6 salgai, N-AG. Egoera onean. ☎ 948 631 444 edo 948 630 073 (gauetz, 9etatik aitzinera).

## BEINTZA-LABAIEN:

Baserrira salgai 400 m<sup>2</sup>ko lur eremuarekin. Argia eta ura baditu. ☎ 948 450 039.

**ELGORRIAGA.** Pisua salgai. 100 m<sup>2</sup>koa + 31 m<sup>2</sup>ko ganbara. Kalefakzioa eta sukaldea guztiz hornitua. ☎ 948 630 005 (8etatik 3ak arte).

## ETXEBIZITZAK

### 103 ERRENTAN EMAN

BERA. Pisua errentan emateko. Mobleztatua. ☎ 948 631 305 (gauetz).

IRUÑEA. Pisua errentan emateko Unibertsitate inguruan. ☎ 948 631 510.

## ttipi-ttapa

Ameriketara  
bidaltzea  
erdi  
prezioan  
gure  
bitartez

Frankeo Kontzertatuari esker,  
errebista berbera guk bidali esker,  
zuk bidaltu baino erdi  
prezioa kostako zaizu.

Iparraldetik deitzeko 19-34-48-  
Hegoaldetik deitzeko 948-

# 631188



## LEGASAKO KONTZEJUA

Usategietako Ehiza Postuen  
enkante publikoa

Honako ehiza postuen aprobetxamendua atara du enkantean, hurrengo hiru urterako:

• **1. lotea:** Ileri inguruan, 1, 2 eta 3. postuak. Hasierako prezioa: 300.000 pezeta.

• **2. lotea:** Ileri inguruan, 5, 6, 7, 8 eta 9. postuak. Hasierako prezioa: 250.000 pezeta.

Lehendabiziko enkantea, irailaren 3an izanen da, goizeko 10,30etan, Legasako Kontzejuko idazkaritzan.

Legasan 1999ko uztailaren 12an,  
Presidentea  
Jose Javier Perez Arregi

**MOTORRA**

**502 TAILERRAK**

**MENDAUR MOTOR**

© 948 450333 • DONEZTEBE

**Bigarren eskuko kotxeak:**

Corsa GSI, Renault 19 Diesel, Clio Diesel, VW Polo, Nissan Patrol Top Line. Suzukiak: Vitara eta Samurai aukeran.

**BERABI tailerrak**

© 948 631 445 • BERA

Nissan Vanette C-5, Ibiza D, Nissan Trade 2.000, Terrano I (5 urte). KOTXE BERRIETAN OFERTAK

**ANIMALIAK**

**601 OPARI EMATEKO**

Husky siberiarrek oparitzen dira. ☎ 629 052 749 (Vidal).

**ANIMALIAK**

**602 SALEROSKETAK**

Cocker spaniel ingles zakurkumeak salgai. Beltzak. ☎ 948 637 432.

Basurde eta erbi ehiziko zakurkumeak salgai. Hila-bete terdikoak. ☎ 948 630 311.

Husky siberiarra, zakurra, 7 hilabetekoa, salgai. 15.000 pezeta. ☎ 948 599170 (arratsaldez).

Zakur setter gazte emea erosiko nuke. Oilagorretan pixka bat ikasia. ☎ 943 517 314.

**ANIMALIAK**

**603 KLINIKAK**

**ALBAITERITZA KLINIKA**

Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak

© 948631362 • Legia 13 •

BERA



**DENETARIK**

**701 GALDU-AURKITUAK**

Norbaitek larruzko giltzari bat eta bi giltza ahantzi ditut. TTUPI-TTAPAKO bulegoan. ☎ 948 631 188.

**DENETARIK**

**702 SALEROSKETAK**

Bigarren eskuko pianoa salgai. ☎ 948 637 316 (arratseko 9etatik aitzinera).

11 metroko balkoirako barandila berria salgai. Aluminiozkoa. Prezio onean. ☎ 948 631 510.



**FESTIVALES 99 BIDASOAko del BIDASOA 99 JAIALDIAK**

Agosto-Septiembre / Abuztua-Iraila

**Abuztuaren 28an**

Lesakako frontoian, gaueko 10,30etan **OSKORRI**. Aitzinetik eta ondotik, **ZIZKUITZ** txaranga.

**Irailaren 5ean**

Doneztebeko frontoian, eguerdiko 12etan, **Bertizko aizkolarien II. txapelketa**.

Nafarroatik, Mikel Mindegia, Antonio Senosiain eta Floren Nazabal. Gipuzkoatik, Joxe Mari Olasagasti, Angel Arrospide eta Jose Migel Peñagarikano. Sariak: Irabazleek, Urrezko Iratzea eta 225.000 pezeta. Galtzaileek, Zilarrezko Iratzea eta 150.000 pezeta.

**Erakusketa**

Berako Kultur Etxean, abuztuaren 28tik irailaren 19ra, «Zinegileak: Euskal Herriko Zinearen historia, 1896-1998».

Consortio Turistico de Bertizko Patzuergo Turistikoa





**SAME**

**DEUTZ  
FAHR**



# AROZ BERRI


**GURE ZERBITZUAK ZURE ESKURA**



**SALMENTA**  
profesionalak



**ERREKANBIO**  
originalak



**ZERBITZU**  
garantizatua



**ASISTENTZIA**  
azkarra

Zaldubia Poligonoa • Tfnoa: 948 581 021 • IRURITA

*Besta zoriontsuak opa dizkizue*

## ORDOKI

**ALTZARIAK**

Estilo ugariko mogleak

**K**alitatea  
prezio  
egokian



MOD. PORTO

**BESULKIAK 3+2**

60.000 ptatik goiti

**ERAKUSKETA**

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

**SALTOKIA**

Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 948 637 780

**LESAKA**



**Besta  
Zoriontsuak!!**

**GANI** NAFARROAKO AURREZKI KUTXA